**Soulfly taldea**
Max Cavalerak Jam aretoa bete zuen
KULTURA, 25



**Mondrak eta UDAk 0-0 bukatu zuten derbia**
13 jardunaldi igaro eta gero, 2-0 galdu zuen Aloñak Hondarribian
KIROLA, 12-13

**Supercools taldea**
Bergararrek diskoa aurkeztu dute
KULTURA, 22



ASTELEHENEKO
# Goienkaria
ASTELEHENA • 2006ko martxoaren 27a • 3. urtea • 95. zenbakia • 0,90 euro

## Bergarako IAT-ITVko langileek lanuzteak hasiko dituzte bihar

*Ordubeteko lanuztea egingo dute 18 langileek bihar eta eguenean, 11:00etatik 12:00etara*

Bergarako IAT-ITVko langileek hainbat hilabete daramate Lan Hitzarmena negoziatzen enpresako zuzendaritzarekin (Applus ITV Euskadi), eta adostasunera iritsi ez izana da mobilizazioon arrazoia.

Apirilaren 11n eta 12an egun osoko greba egingo dutela iragarri dute. Eta akordiorik egon ezean mugagabekoa hasiko dute uztailean. 6

**UZTAILEAN MUGAGABEA**
**Langileek presarik ez dutela diote, eta akordiora iritsi ezean, uztailean mugagabekoa hasiko dutela**

**ESKARI NAGUSIAK**
**Langileen 2006rako eskari nagusiak bi dira: soldatari dagokionez KPI gehi bi puntu igotzea eta lan jarduna 10 ordu murriztea**



JOSETXO ARANTZABAL
Javi eta Angel Aretxabaletako osoko bilkuren aretoan ezkondu ziren barikuan.

## "Bai, gura dut" esan diote elkarri

*Javi Gil eta Angel Irure: gurean ezkondu den lehen mutil bikotea* 7




JOSETXO ARANTZABAL

**BEÑAT INTXAUSTI NAGUSITU ZEN ATZO GORLAKO IGOERAN**
Seguros Bilbao taldeko txirrindulari bizkaitarra (erdian) izan zen azkarrena helmugara iristen (2:32:10). Eta mendiko saria ere eskuratu zuen. Unai Arantzabalek, berriz (eskuman), Bergarako txirrindulari onenaren saria jaso zuen –Debagoieneko azkarrena ere izan zen, 29. sailkatuta–. Jose Vicente Toribiok (ezkerrean), 23 urtez azpiko txapelketako liderrari dagokion maillota jantzi zuen. 117 txirrindularik hartu zuten parte igoeran. 17

## 'Gazta' presoaren egoera salatzeko bilkura etzi Arrasaten 8

## EHNA erabiltzeko tresna berria

*Etxez etxe banatuko dute Arrasaten EHNA onartzen duten denden gida* 2-3

## 'Ignaziotar Lurraldea' turismo proiektua

Debagoiena turismora esnatzen ari da pixkanaka, eta Mankomunitateak eskualde osoko ondarearen balioa handitze lanean dihardu.

Eguenean aurkeztu zuten Donostian *Ignaziotar Lurraldea* izeneko proiektu turistikoa, eta Debagoieneko Mankomunitateko turismo saileko arduradunak han egon ziren. "Gure asmoa Debagoien osoko ondarea nabarmentzea da", adierazi digu Oñatiko alkateorde Joxe Fernandezek. "Oñatiko Arrikrutzeko kobak, Bergarako Errege Seminarioa, Aretxabaletako Urkulu urtegia, Eskoriatzako Ibarraundi museoa, Aizkorri-Aratz parke naturala... Debagoienak errekurtso turistiko asko eskain ditzake, eta marka irudia landu nahi dugu". 4

# GEUREAN

• Asteburuan agurtu dute udaberria Gatzagan eta Aretxabaletan | 4
• Bihar aurkeztuko dute Mundumira jaialdia Oñatin | 8



Jokin Laspiur arrasatearrarekin Shangaiko euskal etxeaz berba egin dugu | 7

**EHNA ERABILTZEKO ARRASATEKO KOMERTZIOEN GIDA KALEAN DA**




JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko 25 eragilek eskaini diote babesa EHNAri; alderdi politikoek, sindikatuek eta herriko hainbat elkartek, besteak beste. Familia argazkia atera zuten aurkezpen ekitaldiaren amaieran.

**AURKEZPEN EKITALDI JENDETSUA** | ARRASATEKO 167 KOMERTZIO JASOTZEN DITU GIDAK; ORDAINKETAN EHNA ONARTZEN DUTE GUZTIEK

# EHNA non erabil dezaketen jakiteko etxez etxe banatuko dute gida

*Gida banatzea, EHNAren tramitazioak bultzatzea eta konpromiso gehiago lortzea dira orain erronka berriak*

Larraitz Zeberio

Kalean da EHNAren erabilpenerako Arrasateko komertzioen gida. Gidaren aurkezpen ekitaldia zapatu eguerdian egin zuen Bai Euskal Herriari herri ekimenak Monterronen. Ekitaldi jendetsua izan zen, EHNAri babesa eman dioten Arrasateko eragile, alderdi, sindikatu eta hainbat gizabanako bildu zituen-eta.

Gidak Arrasateko 167 komertzio jasotzen ditu; guztiek onartzen dute EHNA txartel bidezko ordainketak egiteko. Bultzatzaileak pozik dira herriko merkatariek ekimenari egindako harrerarekin. EHNAk Arrasaten onarpen eta babes handia lortu duela adierazi zuten eta aurkezpen ekitaldian agiri horren garrantzia azpimarratu zuten.

Datozen urteetako erronka nagusia EHNAren erabilera bultzatzea dela ere gaineratu zuten: "Euskal herritar guztiok egin eta erabili beharko genukeen agiria da", azaldu zuen Bai Euskal Herriari herri ekimeneko bozeramaile Mikel Luloagak. "Gure izatea eta nortasuna munduaren aurrean agertzeko tresna baliagarria da, inongo inposaketarik gabe eskuratzen dena".

**ASKOTARIKO BABESLEAK**

Komertzio gida lantzen hasi aurretik EHNAren aldeko atxikimendu kanpaina jarri zuten abian Arrasaten, baita babesle zerrenda askotarikoa lortu ere.

EHNAri babesa eman dioten eragileen artean daude ESK, LAB, ELA, CCOO, AEK, Erdu Euskaltegia, Euskal Herrian Euskaraz, Bilgune Feminista, Santamas eta Maritxu Kajoi komisioak, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz dantza taldeak, Centro Cultural Andaluz, Arrasateko Gazte Asanblada, Arrasateko futbol, errugbi, saskibaloi eta eskubaloi taldeak, Besaide mendi elkartea, Elkarri, Segi, Herri Anitza, Batasuna, EA eta Aralar. "EHNAk ideologia, alderdi eta pentsaera ezberdinen gainetik egon behar du", esan zuen Mikel Luloagak.

**ERRONKA BERRIAK**

Gida etxez etxe banatzea izango da ekimenaren bultzatzaileen lehenengo zeregina: "Tramitazioak bultzatzen ere jarraituko dugu eta aurrerantzean harpidetzak, bazkidetzak eta konpromiso maila handiagoa eskatuko diegu babesleei", esan zuten. Hasteko, datorren barikuan Monterronen egingo den bilkurara bertaratzeko deia zabaldu zuten. 20:00etan izango da.

**• ZERGATIK BABESTU DUZUE EHNA ETA ZERGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA HERRIKO**



**AIZPEA OTXANDIANO** |
SEGI

Garrantzitsua iruditzen zaigu Euskal Herria oso-osorik hartzen duen tresna bat bultzatzea. Eta komertzioen gidak erakusten du, berriz, Arrasaten dendari asko dagoela horrelako tresna bat babestearen alde.



**JOKIN OROBENGOA** |
GAZTE ASANBLADA

Halako ekimen bati gure babesa eskaintzea beharrezkoa ikusten dugu. Arrasateko Gazte Asanblada talde plurala da eta gure gogoa horrelako ekimenak bultzatzea da. Euskal Herria eraikitze bidean tresna garrantzitsua da EHNA.



**IÑAKI GURRUTXAGA** |
MARITXU KOMISIÑUE

Bada garaia euskal herritarrok ere gure naziotasun agiria eskuan edukitzeko! Nork berea. Atxikimenduekin, berriz, indar handiagoa egingo dugu. Zenbat eta babes handiagoa lortu, orduan eta jende gehiago jarriko da gure alde.

EHNA ERABILTZEKO ARRASATEKO KOMERTZIOEN GIDA KALEAN DA

• DEI BATERATUA EHNA EGIN ETA ERABILTZEKO

## Debagoienean 2.900 bat lagunek dute dagoeneko EHNA poltsikoan

Arrasate da, oraingoz, EHNA tramitazio gehien egin dituen Debagoieneko herria. 961 arrasatearrek dute poltsikoan Udalbiltzak tramitatzen duen euskal agiria. Kopuru horretatik kanpo gelditzen dira EHNA tramitatu baina herrikoak ez diren ikasle eta langileak. Ibarreko gainerako herriei dagokienez, hauek dira Bai Euskal Herriari herri ekimenak emandako datuak: Bergara (760), Aretxabaleta (373), Antzuola (222), Oñati (208), Elgeta (100) eta Gatzaga (7). Aramaion egindako EHNA tramitazioak falta dira zerrendan.

## Bergaran ere prest dute EHNAren erabilpenerako komertzio gida

Bergaran ere amaitu dute komertzio gida eta laster egingo dute aurkezpen ekitaldia. Arrasateko Bai Euskal Herriari ekimeneko kide Iker San Miguelek adierazi digunez, gainera, Aretxabaletan ere badihardute lan horretan. "Ez banago oker une honetan dendariekin harremanetan daude. Aretxabaletan ere, hortaz, martxan da gida".

Arrasaten laster hasiko dira gidaren banaketa lanekin, etxez etxe egingo dena. Gero, asmoa da atxikimendua eskaini duten eragileei konpromiso zehatzagoak eskatzea.

• GIDAREN LEHENENGO ALEAK BANATUTA



**BABESLE ETA DENDARIEI.** Arrasateko gidaren 9.000 ale kaleratu ditu Bai Euskal Herriari herri ekimenak. Barikuko aurkezpen ekitaldian banatu ziren lehenengo aleak. EHNAri babesa eman dioten eragile, alderdi eta sindikatuko ordezkariek jaso zituzten, herri ekimeneko Amaia Etxebesteren eskutik. Gidan agertzen diren Arrasateko 167 komertzioek ere dagoeneko jaso dituzte liburuxkok.

**IKER SAN MIGUEL** | ARRASATEKO BAI EUSKAL HERRIARI HERRI EKIMENEKO KIDEA

# "Erronka, orain, EHNAri erabilpena ematea da"

L.Z.

**Urtebeteko lanaren fruitua da Arrasateko EHNAren erabilpenerako komertzio gida. EHNA onartzen duten Arrasateko komertzioen zerrenda jasotzen du.**




L.Z.

**Komertzio kopuru polita lortu duzue gidarako.**

167 komertzio agertzen dira gidan, baina Arrasaten gehiago dira EHNA babesten dutenak: 367, hain zuzen ere. Gidan, kreditu txartel bidez ordainketa egiteko aukera duten komertzioak bakarrik jarri ditugu, baina gehiago izan dira euren babesa agertu dutenak.

**Eta nolakoak dira EHNAri babesa agertu dioten komertzioak?**

Arropa zein oinetako dendak, farmaziak, jatetxeak, optikak, argazki dendak, supermerkatuak, bidaia agentziak, ile apaindegiak... Denetarik dago. Jaso dugun erantzuna zabala eta askotarikoa izan da.

**Nola gauzatu duzue agenda hori? Zein izan da egindako lana?**

Lehenengo eta behin, atxikimenduak bildu genituen. Duela bi bat urte hasi ginen. Ondoren, gida prestatzen hasi ginen. EHNAren erabilera sustatzea zen gure helburua eta herriari erakustea EHNAk dakarren naziotasun aitortza hori posiblea dela Arrasaten. Ez genuen inolaz ere nahi EHNA poltsikoan geratuko zen agiri bat gehiago izatea. Arrasateko komertzioetara jo genuen orduan banan-banan. Joan zen urteko uda amaieran hasi ginen lan horrekin. EHNA zer den azaldu genuen komertzioetan, baita gure helburua gida bat egitea zela adierazi ere.

**"167 komertzio agertzen dira gidan, baina 367k babestu dute EHNA"**

**"Gidan, kreditu txartel bidez ordaintzeko aukera ematen dutenak soilik sartu ditugu"**

**Ezezko asko jaso dituzue?**

Ez. Harrera ona izan dugu. Arrasatekoa ez da mota horretako lehenengo gida, baina komertzio kopuru handiena batzen duena dela esan genezake.

**Atxikimenduen zerrenda ere askotarikoa da.**

Aurreiritzirik gabe herriko eragile guztiengana jo dugu. Azkenean, EHNAk ideologia, alderdi eta pentsaera ezberdinen gainetik egon behar du.

**Pozik zaudete egindako lanarekin?**

Oso pozik. Lan gogorra izan da, baina hemen dugu emaitza.

## ERAGILEEK EHNA-RI ATXIKIMENDUA AGERTZEA?



**LEIRE LARDIZABAL** |
AEK

Euskararen alde lan egiten dugu AEKn, herri honen hizkuntzaren alde, eta herri izaera hori berresten duen EHNA babestea normala iruditzen zaigu. Gure lurraldetasunaren lekuko da EHNA. Gure izaera berresten du.



**BEÑAT IRAZABAL** |
ARRASATE ESKUBALOI TALDEA

EHNA da gure herritartasuna erakusteko gaur egun daukagun tresna bakarrenetarikoa. Aurrerapauso oso handia da, gure ustez, horrelako komertzio gida bat kaleratzea EHNAk herri honetan duen onarpena erakusten baitu.



**ILLART ETXEBARRIA** |
MONDRA FUTBOL TALDEA

Mondratik pentsatzen dugu ekimen horiek garrantzitsuak direla euskal naziotasuna aldarrikatzeko eta praktikan jartzeko. Uste dugu garrantzitsua dela mota horretako ekimenei atxikimenduak ematea.



**MAIALEN EGUES** |
SANTAMAS KOMISIÑUE

Bat egiten dugu EHNAk inplikatzen duen guztiarekin eta garrantzitsua deritzogu euskal herritartasuna bultzatzeari. Guk ere atxikimendua agertu nahi izan dugu, uste dugulako denen artean indar handiagoa egingo dugula.



**MIKEL LULOAGA** |
BAI EUSKAL HERRIARI

EHNAk herritar guztion tresna izan behar du eta euskal herritarrok gure egin behar dugu tresna hori. Herriko hainbat eragileren babesa lortuz gero herritar gehiagorengana iritsiko gara. Horregatik da garrantzitsua.



JOSETXO ARANTZABAL

Hamalau bat lagun batu ziren zapatuan Gatzagan, herriko lorategi, berdegune eta loreontziak txukuntzeko.

# Gatzagan eta Aretxabaletan pala eta arrasteluak nagusi

*Leintz Gatzagan lorategiak garbitzen ibili ziren zapatuan; Aretxabaletan, berriz, Zuhaitz Eguna egin zuten domekan*

Larraitz Zeberio

Ohiz kanpoko mugimendua egon zen zapatu goizean Leintz Gatzagako plazan. Pala eta arrasteluak hartu eta lorategiak garbitzeari ekin zioten goizeko 10etan herriko hamar bat umek. Horrela ospatu zuten udaberriaren etorrera herrian. Gurel guraso elkarteak Udalarekin batera antolatutako ekimena izan zen, hain zuzen ere.

"Zuhaitz Eguna egin izan dugu orain arte", azaldu du Jon Sasiain Kultura zinegotziak. "Baina zuhaixkak herrian bertan landatuz gero umeek gertuagotik jarraituko dute nola handitzen diren". Zapatuko lana lorategi eta berdeguneak garbitzea izan zen. "Dena prest utzi dugu bi bat aste barru zuhaixkak eta loreak landatzeko". 13:00ak arte iraun zuten lanek zapatuan. Tartean, gosaria egin zuten umeek.

**ZUHAITZ EGUNA ARETXABALETAN**

Domeka goizean iritsi zen Aretxabaletako umeen txanda. Goizeko 10etarako egin zuten hitzordua Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako 11 urtetik gorako ikasleek. Lehenengo urtez egin dute Zuhaitz Eguna Aretxabaletan eta 300 zuhaitzetik gora landatu dituzte umeek Urkulura doan bidegorriaren hasieran. Pala eta arrasteluak hartu eta bertako espezieak diren lizarra, haltza, gereziondoa, artea, elorri zuria eta haritza landatu zituzten, festa giroan. Orain, zuhaitz horiek nola handitzen diren ikusi ahal izango dute.

Barikuan aurkeztu zuten *Ignaziotar Lurraldea* izeneko proiektu turistikoa Donostian. Debagoienak izan zuen zer esan ekitaldian.

**JOXE FERNANDEZ** | OÑATIKO ALKATEORDEA

# "Apirilean hasiko dira bisita gidatuak Arantzazun"

Larraitz Zeberio



ARTXIBOA

**Turismo tradizio txikia dugu Debagoienean, baina ibarrean badugu errekurtsorik. Mankomunitatea eskualde osoko ondarearen balioa handitzeko lanean dabil.**

**Pixkanaka badoa aurrera Debagoieneko turismoa.**

Bai, eta garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte-hartzea. Azken finean, administrazioaren babesa edukiz gero promozio-lana errazagoa da.

**Materiala prest zenuten Fitur azokarako. Zertan oinarritzen da?**

Ez gara Ignaziotar Lurraldea proiektuan bakarrik oinarritu. Debagoien osoko ondare historiko, artistiko eta naturalak nabarmendu ditugu. Datorren urtean, Oñatin zabalduko den Arrikrutzeko koba, Bergarako Errege Seminarioa, ibarreko interpretazio zentroak, Aretxabaletako Urkulu urtegia, Eskoriatzako Ibarraundi museoa, Elgetako mendizaletasunaren inguruko zentroa, Aizkorri-Aratz parke naturala, Arrasateko ondare industriala nabarmenduko duen beste proiektu bat... Badago zer nabarmendu.

**Esan daiteke, beraz, Debagoiena turismora esnatzen ari dela?**

Administrazioak apustu handia egin du. Faltan igartzen dugu, ordea, arlo pribatuaren inplikazioa. Askotan, guk errekurtsoak jarri zain daudela dirudi, eta ez luke horrela beharko. Interes komun asko ditugu.

**1997an hasi zineten proiektua lantzen. Erraza izan da lan bateratu hori egitea?**

Gure gorabeherak izan ditugu. Herri guztiek ez dute turismoarekiko apustu horretan sentsibilitate bera agertu. Orain, hori gainditu egin dela esango nuke. Denok ikusten dugu badagoela etorkizunik alor horretan.

**Marka irudia landu nahi duzue. Zeintzuk dira hurrengo pausoak?**

Promozio kanpainak egingo ditugu, eta zabalik ditugu jadanik interpretazio zentroak. Aste Santuan, bestalde, bisita gidatuak jarriko ditugu martxan Arantzazun. Interpretazio zentroko gela batean, gainera, diaporama moduko bat eskaini gura genuke. Lan horretan gabiltza.

• MU-K DIPLOMA BANAKETA EGIN DU OTALORA JAUREGIAN



JOSETXO ARANTZABAL

**MASTERRA BUKATUTA 19 IKASLEK JASO ZITUZTEN DIPLOMAK**

504 orduko masterra egin ostean diploma bana jaso zuten egubakoitzean Mondragon Unibertsitateko 19 ikaslek. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak antolatutako Produkzio Zuzendaritza Masterra gainditu dute guztiek, baita proiektu bana aurkeztu ere. Egubakoitzean, Otalora jauregira deituak izan ziren eskolako arduradun Javier Retegi eta Xabier Sagarnaren eskutik ziurtagiri bana jasotzeko. Jarraian, Ezagutza Clusterreko zuzendari Monica Mosok enpresa sareen gaineko hitzaldia egin zuen.

• KANTU AFARIA JARDUNEN KANTU LIBURUXKA BERRIA AURKEZTEKO



JOSETXO ARANTZABAL

**LIBURUXKA BERRIAK 40 EUSKAL KANTU JASOTZEN DITU**

50 lagun inguru batu ziren egubakoitzean Bergarako Artatse elkartean kantu afaria egiteko. Lehenengo, poteoa egin zuten Pol-Poletik abiatuta. Gero, Artatse elkartean entsalada eta gisatua izan zuten eta kafearekin batera Jardun euskara elkarteko arduradunek kantu liburuxka berria banatu zuten. "Kantu gehiago sartu ditugu liburuxkan eta diseinua ere aldatu diogu", adierazi digu Jardun elkarteko kide Jon Unamunok. "Esaterako, letra handiagoak jarri ditugu, askoren eskaria baitzen".

**ONDAREA** | OLETAKO PRESEI ARKU ETA KONTRAHORMAK GEHITU ZIEN, ETA HALA, PRESA INDARTU ETA URAREN INDARRA HANDITU ZUEN

# Pedro Bernardo Villarreal de Berriz: olak eraberritu zituen arrasatearra

*Lea ibarrean hark egindako azpiegiturak batzen dituen ibilbidea aurkeztuko dute gaur Amoroton*

Monika Belastegi

Lea Ibarreko Mankomunitateak (Munitibar, Aulestia, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexa) Lea Ibilbidea proiektuaren zati bat aurkeztuko du gaur. Zazpi kilometrotik gora ditu zati horrek –ibilbide guztiak 23–, eta, natura balioa izateaz gain, ondare arkitektonikoa ere badu. Gainera, ondare arkitektoniko horrek lotura zuzena du Debagoienarekin. Izan ere, Lea ibarrak garrantzi handia izan du azpiegitura hidraulikoetan historian barrena, eta, hori, Pedro Bernardo Villarreal de Berriz arrasatearrari zor dio.

1669. urtean jaio zen, ingeniari hidraulikoa zen eta haren lanak erreferente bilakatu ziren munduan. Horren adierazgarri dira, esaterako, ibilbidean barrena –Gizaburuagan– ikus daitekeen XVIII. mendeko Bengolea burdinola-errota, esaterako. Gune berean, Pedro Bernardo bizi izandako XVI. mendeko Bengolea dorrea dago. Mariana Rosana Bengolea lekeitiarrarekin ezkonduta iritsi zen hara. Emazteak ondasun ugari zituen Lea Artibaiko eskualdean: olak, burdinolak, baserriak... Eta hura aukera paregabea izan zen Pedro Bernardok bere ikerketak praktikara eramateko.

**INGENIARITZA HIDRAULIKOAN ERREFERENTE**

Adituen esanetan, kontrahormak erabilita egindako lehenengo presak arrasatearrak sortu zituen. Hori izan zen haren ekarpenik nabarmenena. Arkuak eta kontrahormak erabiliz egindako presak askoz indartsuago bilakatu ziren eta bertatik ateratako uraren indarra ere handiagoa zen. Hala, burdinoletan etekin hobeak lortu eta salmentarako burdin hobea ateratzen zuten. Adituen esanetan, teknologia ikuspegitik Euskal Herrian aurkitu diren burdinoletan konplexuena da eta bere garaian aurre-industriako tailerrik garrantzitsuenetarikoa zen.

Baina Pedro Bernardoren berrikuntzak ez ziren presetara mugatu. Bengoleako burdinolan hobekuntza gehiago egin zituen: ur hodiak txikitu, erruberak handitu eta hirugarren labea sartu, kasu.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Irudian Bengolea burdinola eta presa.

## Arrasateko jauntxo familia bateko seme

**Pedro Bernardo Villarreal de Berriz Arrasaten jaio zen, 1669ko maiatzaren 26an. Villarreal familia ezaguna zen garai hartan Gipuzkoan eta baita Erregearen Gortean ere, hango agintariendako idazkari eta aholkulari lanak egindakoak zirelako. Pedro Bernardok, baina, ez zuen bide hura jarraitu: ikerketarako zaletasuna zuen eta Salamancan egin zituen ikasketak. 1694an Mariana Rosa Bengolea lekeitiarrarekin ezkondu zen eta horrek erraztu egin zion ikerketetan sakontzeko bidea. Izan ere, Bengoleatarrek hainbat ola, burdinola eta baserri zituzten.**



**EZKONTZA** | IBARREKO MUTIL BIKOTE BATEN LEHEN EZKONTZA EGIN ZUTEN EGUBAKOITZEAN ARETXABALETAN

# Malkoei ia ezin eutsita esan zuen baietz ibarreko lehen senar bikoteak

*Erabat hunkituta, baiezkoa eman zioten elkarri Javi Gil eta Angel Irurek Aretxabaletako udaletxean. Zeremonia xume eta polita izan zen eta sekulako ikusmina piztu zuen herrian*

Asteleheneko Goienkaria

Aspaldi ez zuen gertakizun batek Aretxabaletan halako ikusminik sortzen. Egubakoitzean 20:00etan zen hitzordua, eta ordurako jendetza batu zen udaletxeko ateetan, ezkonberrien zain. Bitartean, udaletxe barruan une hunkigarriak zebiltzan bizi izaten Javil Gil, Angel Irure eta senideak. Zeremonia xume baina polita izan zen: Felix Beltran de Heredia zinegotziaren aurrean eta mahaia arrosa horiz josita, baiezkoa eman zioten elkarri Angel eta Javik, malkoei ezin eutsita, guztiz hunkituta. Lekuko moduan arrebak aukeratu zituzten: Angelek, Mirari, eta Javik, Isabel. Aretxabaletako abesbatza ere han izan zen, ezkonberriei laguntzen. Lore-sorta beharrean euskal agintе-makila zeraman eskuetan Javik. Izan ere, andaluza da, eta euskaldunekiko keinu hori egin gura izan zuen ezkongaiak.

Udaletxe barruko une hunkigarriak kanpoan zegoen iskanbilarekin nahastu ziren. Zeremonia amaitu eta agiriak sinatu bezain laster, kalera irten ziren ezkonberriak pozaren pozez. Han koadrilakoak zeuzkaten zain, harrera egin eta aurreskua dantzatzeko gertu. Txaloekin eta zoriona opatzen hartu zituzten herritarrek eta ordurako ezkonberriek ezin izan zuten emozioa ezkutatu. Zalaparta handia zegoen udaletxe parean eta haur bat baino gehiago gerturatu zen bikotearengana ea Jesus Vazquez non ote zegoen galdezka. Izan ere, kontu maltzur hori ibili da ahoz aho herrian azken egunetan baina telebistako aurkezlearen arrastorik ez.

**GAUEKO ORDU TXIKIAK ARTE**

Baster-Alde jatetxean jarraitu zuten ospakizunarekin, gainontzeko 180 gonbidatuekin batera. Kanpotik ere gonbidatu asko etorri ziren; Nafarroa aldetik autobusak eta Bartzelona eta Chicagotik ere lagunak etorri ziren Angel eta Javiren ezteietara.

Behin bapo afalduta, dragqueen hirukote batek ikuskizuna egin zuen jatetxean. Giro horrekin esan beharrik ere ez dago jaia gaueko ordu txikiak arte luzatu zela. Zapatuan, gainera, aurreko gauekoak gutxi balira, lagunekin afaria egin zuten Elgoibarko Belaustegi jatetxean. Orain, atseden hartu eta maletak egitea besterik ez zaie geratzen; Brasilera joango dira ezkonberriak eztei-bidaian.

**Herrian piztutako jan-mina itzela izan zen; udaletxeko ataurrea jendez gainezka zegoen**



JOSETXO ARANTZABAL

Oso une hunkigarriak bizi izan zituzten udaletxe barruan.



JOSETXO ARANTZABAL

Koadrilakoak egon ziren ezkonberrien zain udaletxeko atean.

# Lanuzteak egingo dituzte asteon IAT-ITVko langileek

*Martitzen eta eguenean ordubetez geratuko dira. Lan Hitzarmena negoziatzen ari dira*

Monika Belastegi

Bergarako IAT-ITVko langileek ordubeteko bi lanuzte egingo dituzte asteon: hilaren 28an eta 30ean, 11:00etatik 12:00etara, hain justu ere. Lan Hitzarmena negoziatzen dihardute hainbat hilabetez enpresako zuzendaritzarekin –Applus ITV Euskadi– eta akordiora iritsi ez direlako hasiko dituzte mobilizazioak. Roberto Gomezek, langileen ordezkariak, azaldutakoaren arabera bi dira 2006rako eskari nagusiak: soldatari dagokionez, KPIa gehi bi puntu igotzea eta lanjardunaren kasuan hamar orduko murrizketa.

Irungo eta Urnietako IAT-ITVetako langileen baldintzekin parekatzea da Bergarako langileen nahia: "Astean 35 orduko jarduna dute eta urtean guk baino ia 1.000 euro gehiago irabazten dute", azaldu du Gomezek. "Hala, aurrerapausoak eskatzen ditugu haiekin parekatzen joateko".

Horren haritik azpimarratu dute ez dutela presarik eta mobilizazioak areagotzeko asmoa dutela. Dagoeneko iragarri dute Aste Santuaren atarian, apirilaren 11n eta 12an, egun osoko greba egingo dutela. Bestalde, akordiora iritsi ezean uztailean mugagabeko greba hasiko dute.

18 langilek dihardute Bergarako IAT-ITVn eta batez beste 200 ibilgailu hartzen dituzte egunero (48 mila urtean). Debarroari eta Goierriko eta Urolako hainbat herriri egiten diete zerbitzu.




ARTXIBOA

Urtean 48.000 bat ibilgailuri egiten diete inspekzioa Bergaran.




AMAGOIA LASAGABASTER

Ulmako langile zen Iker Lucas izan zuten gogoan ekitaldian.

## Barikuan zabaldu zuten Ulma Handing Systems-eko eraikin berria

*Logistika sistema automatizatuendako ingeniaritza lanak egingo dituzte; 4.000 m²-ko eraikina egin dute Urrutxun*

Asteleheneko Goienkaria

Egubakoitzean inauguratu zuen Ulma Handing Systems negozioak eraikin berria Oñatin. Urrutxuko industrialdean jarri dute pabilioia –orain arte Otadui Zuhaiztian egon da–, 4.000 metro koadro ditu, beiraz hornitua dago kanpotik eta egitura modernoa du.

Ekitaldian agintari eta enpresa esparruko ordezkari ugari batu ziren. Han izan ziren, besteak beste, Txabarri diputatu nagusia, Oñatiko alkate Lurdes Idoiaga, MCCko presidente Jesus Catania eta Ulmako zuzendari orokor Txomin Gartzia.

**HAZKUNDEAREN ERAKUSLE**

Logistikako sistema automatizatuak egingo dituzte eraikin berrian. Ingeniaritza lana egingo dute, azken finean, eta horretarako, ikerkuntzarako prototipoen nabea eta 120 langilerendako bulegoak ditu eraikinak. Duela 18 urte ekin zioten negozioari eta izan duen hazkundeari erantzuteko jaso dute eraikin berria.

Txabarri diputatu nagusiak halako negozioek Euskal Herriaren eraikuntzan duten garrantzia azpimarratu zuen. Oñatiko alkatea ere pozik azaldu zen eta Udala laguntzeko prest dutela gehitu zuen.

● ELGETAKO GAZTETXEAREN 10. URTEMUGA



GEAXI EZPELETA

**NAGUSIENDAKO TAILERRAK EGIN ZITUZTEN**

Elgetako Gazte Asanbladak 10. urtemuga ospatzeko ekitaldiekin jarraitzen du. Aurreko batean umeendako tailerrak egin zituzten eta oraingo zapatuan nagusien txanda izan da. 20 bat lagun batu ziren eta gaztetxearen kanpoko aldean askotariko tailerrak egin zituzten: batzuek gorputz espresioa landu zuten; besteek hanka-paloak nahiago izan zituzten eta txalapartan jardutea nahiago izan zuenik ere izan zen. Egubakoitzean Kolonbiaren gaineko hitzaldia izango da, 21:30ean, gaztetxean.

Lan kontuak direla-eta Txinara joan zen duela urte eta erdi 26 urteko arrasatear hau. Hango bizitzara ondo moldatu da eta dagoeneko txineraz berba egiten ere ikasi du. Saskibaloian jokatzen du Shangaiko talde batean, eta lanak uzten dionean euskal etxera gerturatzen da patata-tortilla jan eta musean jokatzera.

**JOKIN LASPIUR** | SHANGAIKO EUSKAL TXOKOKO LEHENDAKARIA

# "Asiako euskal etxe bakarra da Shangaikoa; euskaldunok batzeko dugun txokoa da"

Jokin Etxebarria

**Nolatan joan zinen Txinara?**

Lan aukera polita irten zitzaidan han, eta bai pertsonalki eta baita profesionalki ere interesgarria iruditu zitzaidan aukera horri baiezkoa ematea. Eta dagoeneko urte eta erdi daramat Shangain bizi izaten.

Lehenago ere etortzen nintzen Txinara lanera noiz edo noiz, baina MCCk Shangain duen delegazioko arduradun egin nindutenetik bertan bizi naiz. Orain denbora luzeagoa pasatzen dut Txinan Arrasaten baino. Zaila da etxetik kanpo horrenbeste denbora pasa behar izana, baina gazteak gara, eta orain egin ezean, noiz egingo dugu ba?

**Shangain euskal etxea dago, eta hango bazkide izateaz gain, duela gutxitik lehendakaria zara.**

Bai, duela bi aste ezkero naiz lehendakari, eta bazkide joan zen urtea ezkero.

Egia esatearren, bazkide egitea kostatu egin zitzaidan; izan ere, oso lanpetuta ibiltzen naiz, eta askotan Shangaitik kanpora joan beharra izaten dut. Baina Txinan dauden euskaldunekin elkartzeko eta harremana izateko aukera ona zen, eta, azkenean, horrek bultzatu ninduen izena ematera.

**Zer motatako elkartea da Shangaiko euskal etxea?**

Berez, Euskal Herrian izaten ditugun elkarte gastronomikoen antzekoa da. Asian dagoen euskal etxe bakarra da, eta bertako euskaldunak elkartzeko eta gure kultura mantentzeko leku ezin hobea da.

**Eta zenbat lagun elkartzen zarete elkartean?**

Gaur egun bazkide berri asko ditugu; izan ere, 40 bat bazkide gara orain. Euskal etxea handitzen doan seinale.

**Beste euskal etxe batzuetan bezala, ekintza berezirik antolatzen duzue?**

Denok elkartzea ez da erraza izaten, baina saiatzen gara gauza bereziak antolatzen gure arteko harremanari eusteko: patata-tortillak, euskal jaiak, afariak, mus txapelketak... ez dira falta izaten elkartzen garen bakoitzean.

**Kiderik gazteenetakoa zara, eta lehendakari?**

Badaude ni baino kide gazteagoak ere, baina niri egokitu zait aurten lehendakari izatea. Urtebetez bakarrik egongo naiz karguan, ez da denbora luzea. Gero, beste bazkide batek hartuko du kargua.

**Eta denbora horretan zerbait berezia egitea pentsatu duzu? Proiektu berriren bat...?**

Horretan gabiltza. Euskal etxeari beste ukitu bat eman nahi diogu. Horren haritik, ideia berriak irteten dabiltza: kamisetak aterako ditugu, liburutegi antzeko bat egin nahi dugu, Internet jarri...

Hainbat gauza berri sartu nahi ditugu, baina ideia asko izanagatik, ez dugu denbora luzeagorik. Azken batean, kide guztiok gabiltza lanean eta ez dugu denbora luzerik izaten. Hortaz, poliki-poliki egin beharko ditugu gauzak.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Jokin Laspiur duela urte eta erdi joan zen Shangaira lanera.

**"40 bat bazkide gara eta Euskal Herrian ditugun elkarte gastronomikoen antzekoa da funtzionamendua"**

**"Beste ukitu bat eman nahi diogu: liburutegi antzekoa egin nahi dugu, Internet ere jarri nahi dugu..."**

BASABE
jatetxea
Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

## Albiste izango da

**BERGARA** | 17:00ETAN EGINGO DUTE URTEKO BATZARRA

### San Joxepe elkarteak zuzendaritza erdia berrituko du etzi, batzarrean

San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra egingo du eguaztenean, 17:00etan, Boni Laskurain kalean duten egoitzan. 2005. urtearen balantzea egingo dute, 2006rako helburuak adostu eta zuzendaritzaren erdia aldatuko dute. Hori horrela, elkarteak dituen 1.608 bazkideei dei egiten diete batzarrerako.

Zuzendaritza batzordeak egingo dituen aldaketetako bat lehendakariarena izango da. Juanito Iturraldek du gaur egun ardura hori eta Alejandro Arroyok hartuko dio lekukoa. Maria Asun Plazaola idazkarirena, berriz, Luis Larrañagak hartuko du.

**ARRASATE** | ETZI, 19:00ETAN, HERRIKO PLAZAN

### Jose Ignazio Gaztañaga 'Gazta' presoaren egoera salatzeko bilkura

Arrasateko Etxeratek Jose Ignazio Gaztañaga *Gazta* presoaren egoera salatzeko bilkura deitu du eguaztenerako, hilak 29, 19:00etan, herriko plazan. Etxerateko ordezkariek azaldu dutenez, "eguaztenean zuen *Gazta*-k espetxetik irteteko data, baina ebazpen judizial berriarekin –Paroti legez– 2018ra arte luzatu diote zigorra".

Ebazpen judizial hori salatzeko eta presooi elkartasuna adierazteko prentsaurrekoak ere egingo dituzte Askatasunak eta Etxeratek asteon. Horrekin batera, apirilaren 7 eta 8rako martxa antolatu dute Granada eta Kordobako espetxeetara –hortxe daude *Gazta* eta Parot, hurrenez hurren–. Horren guztiaren berri ere emango dute prentsaurrekoan.

**DEBAGOIENA** | MAIATZAREN 26TIK 28RA IZANGO DA

### Bihar aurkeztuko dute Mundumira jaialdiaren egitaraua Oñatin

Bihar, martitzena, aurkeztuko dute Mundumira jaialdia. Oñatin izango da, maiatzaren 26tik 28ra bitartean, eta dagoeneko prest dute egitaraua antolatzaileek –Debagoieneko Mankomunitatea eta *Euskal Herria* aldizkaria–. Musika, kale antzerkia, animazioa eta dantza saioak izango dira ekitaldien muina. Baina, horrez gain, hainbat ekitaldi ere izango dira: mendi irteerak, ibarreko gobernuz kanpoko erakundeen standak, azoka, diapositiba emanaldiak, erakusketak...

Iaz egin zuten lehenengoz Mundumira jaialdia. Arrasaten izan zen, eta aldi hartan jasotako erantzunarekin gustura geratu zirelako erabaki dute antolatzaileek bigarrenez egitea. Babesle modura hainbat enpresaren ekarpenak ere azpimarratzekoak dira.

**ARRASATE** | 19:00ETAN, OSOKO BILKUREN ARETOAN

### Arrasateren iraunkortasunaren gaineko hitzaldia bihar udaletxean

Zergatik da hain garrantzitsua iraunkortasuna?; ba al dago aldaketa klimatikorik?; petrolio garaiaren amaieran al gaude?; zer egin dezake hiri batek horren guztiorren aurrean?; Arrasate Iraunkorra hausnarketa estrategikoak zer ekarpen egingo du?...

Galdera horiek guztiak eta beste hainbat erantzuten saiatuko da Juanjo Gabiña, Arrasate Iraunkorra prozesuaren dinamizatzailea bihar, martitzena, osoko bilkuren aretoan egingo duen hitzaldian. 19:00etan izango da, *Arrasate Iraunkorra, Etorkizuna aurrez prestatu* izenburupean.

**DEBAGOIENA** | OHIKO LEKUETAN BATUKO DUTE

### Baserri inguruetan sortutako plastikoa batzeko eguna da bihar

Bihar, martitzena, da baserri inguruetan sortzen den plastikoa batzeko eguna. Batuko duten plastikoa da siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria (plastikozko sokak ez dituzte batuko).

Arratsaldean eta ohiko lekuetan laga behar da. Beste nonbait lagatzeko premia izanez gero, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira. Hurrengo batzeen eguna maiatzaren 23an izango da (apirilean ez dute plastikoa batuko).

## Hitzorduak



**TXATXILIPURDIREN UDALEKUETAN IZENA EMAN DAITEKE** |

### Ikastetxeetan banatutako izenemate orria utzi behar da elkartean

Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak gaur, astelehena, zabaldu du Txatxilipurdin udaleku irekietan zein itxietan izena emateko epea. Interesa dutenek ikastetxeetan banatutako izenemate orria bete eta elkartearen egoitzara eraman behar dute, edo 943 79 54 46 telefonora deitu.

Bestetik, udaleku horietan begirale izateko gertu dagoen jendeak ere badu oraindik bere burua aurkezteko modua. Horretarako, izenemate orria eta curriculuma entregatu behar dituzte Txatxilipurdin. Argibide gehiagorako, deitu elkartearen telefono zenbakira.

**ARETXABALETA** |

**• Olinpiadak eta sagardotegi batera irteera**
Goiena Sport-ek olinpiadak eta Hernaniko sagardotegi batera irteera antolatu ditu apirilaren 1erako, eta izena emateko epea zabalik dago.

**• Finantza erakundeekin lan egitearen gainekoak**
Internet ikastaro horren lehen atala emango dute eguenean, hilak 30, KZgunean, 18:00etan.

**• Kubako eta Venezuelako egoeraz berba egingo dute**
Kubako eta Venezuelako egoera sozial eta politikoaz berba egingo dute Mundukideko Truke Programaren bidez etorri diren hainbat lagunek eguenean, hilak 30, udaletxe zaharrean, 19:30ean.

**ARRASATE** |

**• Hasiberriendako yoga eta masaje ikastaroak**
Apirilean hasiko dira bi ikastaroak. Izenemate telefonoak: 943 79 20 85 eta 943 79 66 98.

**• Rolen eragina eta maskulinotasuna, hizpide**
*Rolen eragina maskulinotasunean* delako hitzaldia egingo du Mikel Otxotorenak etzi, eguaztena, udaletxean, 19:00etan.

**• Internetez lana bilatzearen gaineko ikastaroa**
*Enplegu bat lortu* delako ikastaroa emango dute eguenean, hilak 30, KZgunean, 09:00-11:00.

**BERGARA** |

**• Gurasoendako hitzaldia Mariaren Lagundian**
*Anai-arreben arteko harremanak: maitasuna eta gorrotoa (zeloak)* izeneko hitzaldia egingo dute hilaren 30ean, eguena, Mariaren Lagundia ikastolan, 18:00etan. 6 urtera arteko gurasoendako da.

**• Amerikako emakume indigenen ikuspuntua**
*Amerikako emakume indigenen ikuspuntua* delako mahai ingurua egingo dute lau emakume indigenak. Eguenean, hilak 30, izango da, udaletxean, 19:00etan.

**ANTZUOLA** |

**• Autobusa antolatu dute apirilaren 1eko bilkurarako**
Antzuolako ELAk, LABek, Zutik-ek, EAk, Batasunak eta hainbat eragilek autobusa antolatu dute apirilaren 1ean Bilbon egingo den manifestaziora joateko. Izena herriko tabernan eta enpresetan eman daiteke hilaren 29a baino lehen. 15:30ean abiatuko da Altzarte paretik.

**DEBAGOIENA** |

**• Jaurlaritzaren eta Aldundiaren gazte programak**
Jaurlaritzak bi programa antolatu ditu: auzolandegiak, eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa, hiru hilabeteko lankidetza programa ehungazterendako. Argibideak eta izenematea, *www.gazteaukera.net* webgunean. Gipuzkoako Foru Aldundiak 7-13 urtekoendako udalekuak antolatu ditu, eta apirilaren 7ra arte dago izena emateko epea *www.gipuzkoa.net/oporraldi* webgunean.

**ESKORIATZA** |

**• Arantzazura erromesaldia egingo dute apirilean**
Apirilaren 8an, erromesaldia egingo dute. Autobusez joan gura duenak Viteri dendan eman behar du izena apirilaren 5a baino lehen. Prezioa 10 euro da.

**• Santa Ageda eguneko jaiaz hitz egiteko batzarra**
Santa Ageda eguneko jaiaz hitz egiteko batzar irekia deitu du Udalak, herritar guztiendako. Etzi, eguaztena, izango da, kultura etxean, 18:00etan.

**OÑATI** |

**• Emakunderen Nahiko programa aurkeztuko dute**
Emakunderen Nahiko programaren berri emango dute bihar, martitzena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

**• Heziketa afektibo-sexualaren gainekoak**
Gai horren inguruko hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, ikastolan, 18:30ean.


BERANGO
DEKORAZIOA, SUKALDEAK
LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK
QU4TRO
Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate
Muebles
Kabía
Altzariak
4 URTE
interes barik
Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70
ERAKUSKETA BERRIA

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2006ko martxoaren 27a

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

**• Bazterbideak txukuntzeko eskaera**

Txirrindulari batek bidali digu honako txistua, ibarreko bazterbideak txukuntzeko eskatuz: "Hasi dira eguraldi onak eta gero eta gehiago gara errepideetan gabiltzan txirrindulariak. Tristea da gure ibarrean txirrinduendako biderik ez egotea, baina tristeagoa da zenbait lekutan bazterbide zabalak egon eta erabiltzerik ez izatea. Harriak, kristalak, hautsa... Normala denez denetarik batzen da bazterbideetan. Agian, noizean behin txukunduta txirrindulariek probetxu ederra aterako genieke bazterbide horiei".

**• Elgetan banku eta loreontzi berriak jartzeko eskaera**

Gure irakurle batek txistua bidali digu, Elgetako zenbait banku eta loreontziren egoera tamalgarria salatzeko. "Aukera dudan guztietan ateratzen naiz paseatzera eta aspaldian konturatuta nago herriko zenbait lekutan guztiz abandonatuta dituela Udalak esertzeko bankuak eta loreontziak. Martin Iturbe kale amaieran, esaterako, banku bakarra zegoen. Han jarraitzen du, baina hankaz gora. Negu gogorrak pasa ditu gaixoak eta hankak ustelduta ditu. Ezin daiteke erabili. Bestalde, ez dute batere itxura ederrik Salbador kaleko espaloietako loreontziek. Landare horiek ez dute aspaldian lorerik ematen eta loreontzi batzuk apurtuta daude, auto batek baino gehiagok jo baititu".

**• Guraso gutxi etortzen da hitzaldietara**

Eskoriatzatik heldu zaigu hurrengo txistua: "Guraso naiz, eta pena ematen dit umeei buruz antolatzen diren hitzaldietara etortzen den jende gutxia ikusteak. Hainbat antolatu dira azken asteotan gure herrian eta pertsona gutxi elkartu gara. Berdin dio, gainera, nork antolatzen dituen. Ez dago kezkarik, ala?".

## Sarean harrapatuta

### ETAk su-eten iraunkorra iragarri du. Zein iritzi duzu?

**Aste honetako eta, beharbada, urteko albisterik garrantzitsuena izan da ETAren su-eten iraunkorraren iragarpena. Oihartzun handia izan du albisteak hemen eta mundu zabalean eta denetariko iritziak entzun ditugu azken astean. Su-etenarekin pozik agertu dira batzuk; mesfidati, ordea, beste batzuk. *Goiena.net* webgunean jarri dute su-etenaren gainean iritzia emateko lekua. Hemen bildu ditugu iritzi batzuk.**

**ONGI ETORRIA IZAN DADILA SU-ETENA**

Espero nuen. Ez orain, baina bai urrun gabe. Zorionekoak denok. Ongi etorri!

Mendiluze / www.goiena.net

**BESTE ALDEKOEK EMAN BEHAR DUTE PAUSOA**

ETAk eman du lehenengo pausoa, ea orain hasten diren beste aldekoak ere pausoak ematen. Zaila izango da bidea, beti egongo da baten bat oztopatzen (PP...), baina aurrera egin behar da. Ea berandu baino lehen hasten garen zerbait igartzen.

Lolo / www.goiena.net

**SUFRIMENDU ASKO EGON DA ALDE GUZTIETAN**

Berandu dator. Betiko moduan, berandu. Zenbat sufrimendu egon den alde guztietatik. Merezi izan du?

Alicia / www.goiena.net

**LANEAN HASI BEHAR DUGU ORAIN**

Ez dago ezer eginda. Aukera bat besterik ez da. Koherentzia, enpatia, elkar ulertze eta amore emate jakitearen dinamikan sartzen ez bagara, ETAk emandako urrats honek ez du ezertarako balio izango. Ea behingoz politikariek maila ematen duten.

Lortuko al dugun? Zaila da erantzuna ematea. Baina azken orduotan nabari dudan ilusioa kontuan izango balute, eta sufrimendua ilusioagatik ordezkatzen ahaleginduko balira, prozesu latz hau leunagoa bilakatuko litzateke. Ordua da Euskal Herrian dauden beste arazoak kontuan hartzeko.

Lorea/ www.goiena.net

**NIREA ESKURATZEKO SUFRITUKO DUT**

Zein da galdera, Alicia? bizitzan sufritzeak merezi duen? Begiratu gure ingurura eta egin negar. Eta bestela gogoratu gure egunerokoak (kapitalismoak, kontsumismoak, egoismoak) munduko beste herritarrei eragiten dien sufrimenduarekin. Hor ez dugu ezer esateko. Nik gaurdanik agertzen dut sufritzen jarraitzeko asmoa, baina sufritzen nirea dena eskuratzeko.

Martxelina / www.goiena.net

**EZIN GARA BETI SUFRITZEN EGON**

Bai Martxelina. Ondo dago hori. Ondo dago zureagatik sufritzea, baina hori beharrezkoa denean edo patuak horrela agintzen duenean egin behar da bakarrik. Ala zure bizitza zure ingurukoen ongizateari laguntzeagatik sufritzen pasatu behar duzu? Zertan laguntzen dio horrek inori? Zertan laguntzen die jarrera horrek munduko beste herritarrei eragiten diegun sufrimenduan? Gehi iezaiozu alaitasun pittin bat zure bizitzari.

Etor / www.goiena.net

**GURE ERABAKIA ERRESPETATU BEHAR DA**

Gure herriak bakea behar du betirako. ETAk Espainiako eta Frantziako gobernuei eskatzen die erabakiak errespetatzeko, baina ETAk berak ere errespeta dezala. Onar dezala euskal herritarrok erabakitzen duguna, era batekoa izan zein bestekoa izan. Horretan datza demokrazia, ezta?

Agurtzane / www.goiena.net

**PRESOAK EKARRI ETA BATASUNA LEGEZTATU**

Beti bezala betikoek eman dute lehenengo pausoa. Eta orain zer egin behar dugu? Espainiako gobernuak du pilota bere teilatu gainean. Ekar ditzatela behingoz euskal presoak Euskal Herrira eta, era berean, legeztatu dezatela Batasuna.

Jon / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

Oraintxe bete da urtea Bergaran lehen mailako pilota partidak hasi zirenetik. Zein balorazio egiten duzu?

?



**UNAI ASURMENDI** |
BERGARAKO KIROL TEKNIKARIA

Balorazio positiboa egiten dut. Alde batetik, partidu hauek herrian sortzen duten jende mugimenduagatik. Pilotazaleak gustura daude eta merkatariak ere bai. Jendea etortzen da herrira eta tabernetan kontsumitzen du. Beste ekintzetan ez dagoen eskaintza pilotak betetzen du.



**JOKIN ETXANIZ** |
ASPEKO ZUZENDARI TEKNIKOA

Jendea gustura etortzen da Bergarako pilotalekura; txapelketako partiduetara gehiago, noski. Pilotariak ere pozik etortzen dira. Denei gustatzen zaie frontoia. Badakite berezia dela, gogorra baina oso ona pilotan egiteko. Entrenamenduak ere oso gustura egiten ditugu. Ez dugu kexarik.



**PATXI MUTILOA** |
ASPE ENPRESAKO GERENTEA

Pozik gaude. Txapelketako partidu asko jokatu dira Bergaran eta beti etorri da jendea. Hiruzpalau aldiz, gainera, bete egin da frontoia. Badakigu ohiturak aldatzen doazela. Gero eta zailagoa da domeketan jendea frontoietara erakartzea, baina Astelenara beste jende etortzen da Bergarara.



**AITOR ELKORO** |
PILOTARIA

Pena zen hain frontoi dotorea edukita profesional mailako partidak ekartzeko ez aprobetxatzea. Iruditzen zait partidu hauek oso interesgarriak direla inguruarentzat, eta ez soilik kirol mailan. Jendea erakartzen dute, gehienbat txapelketako partiduek, eta herrian mugimendua sortzen dute.

## Egunkarietako harribitxiak

**SEME-ALABENDAKO DETEKTIBEAK**

Gero eta gehiago dira seme-alabek zer egiten duten jakiteko detektibeak kontratatzen dituzten gurasoak. Halaxe zioen atzo, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak. Drogak eta *bullyng*-a dira gurasoak gehien kezkatzen dituztenak eta detektibeak jartzeko arrazoi nagusia.

**'Noticias de Gipuzkoa'**
2006-03-26



sociedad

Cada vez más padres recurren a detectives para saber qué hacen sus hijos en su tiempo libre

Fraudes laborales y secuelas de accidentes acaparan la mayoría de las investigaciones

**LEKUALDATZEARI ODOLKIAK ORDAINETAN**

Globalizazioak ekonomiari ekarriko omen zizkion etekinak luze eta zabal aldarrikatu ondoren, Europako Batzordeak onartu behar izan du gertakari horren atzetik ezkutatzen den alde iluna. Enpresa edo sektore jakin batzuen birmoldatzeak eta produkzioa beste herrialde batzuetara eramateko praktikak kontinente osoko milaka eta milaka langileri kalte egin die dagoeneko. Bruselak, azkenik, esku hartzea erabaki du, eta Globalizaziora Egokitzeko Funtsa sortzea erabaki du. Munduko merkataritzan jazotzen ari diren egiturazko aldaketen ondorio txarrak sufritzen dituzten eskualdeei eta langileei begira pentsatutako laguntza izango litzateke, eta ez krisian dauden sektoreei dirua emateko tresna.

**'Berria'**
2006-03-26



egitura

Lekualdatzeari odolkiak ordainetan

## Tira, tira...




**Peli** 'Berria' | 2006-III-26

## Zorroztailea



# Denak berdinak izatea ere!

*Marokoko Mohamed VI.a erregeak gaur Aaiunen adierazi du ezinezkoa dela Mendebaldeko Saharako gatazka konpontzeko autodeterminazio erreferenduma aurreikusten duen NBEren plana martxan jartzea, eta horren lekuan autonomia proiektu baten alde egin zuen, zehaztasun gehiagorik eman barik.*

**'La Razón Digital'** | 2006-03-25

Jabier Arantzeta

Handia da bada denak berdinak izatea! Berdin da NBEk horrela agintzen duen ala ez, berdin da saharar gehienek hala nahi duten ala ez, berdin da edozein pertsonak munduko gauzarik naturalentzat hala ikusten duen ala ez, errege jaunak esan du ezinezkoa dela eta izorra hadi.

Eta zer dela eta Hegoaldeko kontu hauek aipatzea? Bada, Iparrerago ere egoera antzerakoa delako. ETAren menia dela eta, hain itxaropentsu gauden honetan utzidazue puta xamar jartzen eta esaten hemen ere, bai PSOEk eta bai PPk ezinezkoa ikusten dutela autodeterminazio erreferenduma, ikusi bestela Kataluniako Parlamentuari zenbat autodeterminazio eman dioten.

Beraz, PPren eta bere inguruko hedabideen izugarrizko iskanbilaren ostean, baliteke PSOEk, bere barruan honek ere tremendako zaratak izan ostean, Autonomia Estatutua aldatu eta diru apur bat gehiago, Kirol Selekzioak, eta beste horrelakoren bat ematea, baina autodeterminaziorik ez, hori ez da sartzen "demokrata" horien buruan. Horrelakoak Ipar Irlandarako dira hango gehiengo protestanteak arrisku guztiak konpontzen dituelako, ez pentsa bestela Londoneko "demokratek" ere horrelakorik onartuko zutenik.

Eta zer egin behar dugu guk honek aurrean? Bada on-onean zein neurritaraino ez demokratak diren azaltzen saiatu, behin eta berriro euren kontraesan azaleratzen saiatu, mundu guztiaren aurrean "demokrata" horiek lotsagarri uzten ahalegindu; izan ere orain arteko ETAren bideak, garbi utzi digu, gaur egungo Europan tiroka ezin dela gauza handirik lortu.

**"Utzidazue puta xamar jartzen eta esaten bai PSOEk eta bai PPk ezinezko ikusten dutela autodeterminazio erreferenduma"**

**"Eta zer egin behar dugu guk horren aurrean? Bada, on-onean zein neurritaraino ez demokrata diren azaleratzen saiatu"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El País'

**ELKARRIZKETA**

"Ez dago zalantzarik Otegik bakearen itxaropenaren aldeko diskurtsoa izan duela azken boladan, eta funtsezkoa da ezker abertzaleak parte hartzea bake prozesuan. Baina legea eta epaileen erabakiak errespetatu egin behar dira eta hori egiten lehenak Gobernuko presidentea izan behar du".

**Jose Luis Rodriguez Zapatero**
2006-03-26

### 'Deia'

**ELKARRIZKETA**

"2003ko hauteskundeetan ere egotea zen gure nahia. Gaur egungo baldintza politikoetan eta ETAren adierazpena egiaztatuz gero, ziurtzat ematen dugu Batasuna –edo ezker abertzaleak ordezkatuko duela erabakitzen duen talde politikoak– egon egingo dela 2007ko hauteskundeetan, beste edozein alderdiren berme berekin".

**Josu Jon Imaz**
2006-03-26

### 'Gara'

**ELKARRIZKETA**

"ETAren adierazpenaren ondotik, prozesuak atzeraezina izateko herri honen eskubideekin konprometituta sentitzen garenon ekimen etengabea behar da: Euskal Herriaren eskubide demokratikoen alde, eskubide zibil eta politikoen alde, presoen alde, eraikitze nazionalaren alde... Bakoitzak egin beharreko barne eztabaida da egoera berriaren alde".

**Joseba Permach**
2006-03-26

### 'Berria'

**ELKARRIZKETA**

"Su-etenak indartu egin du Zapatero, bere alderdiaren baitan eta baita PPren presioei aurre egiteko orduan, ikuspegi judizialetik nahiz mediatikotik begiratuta. Oraindik garaiz gabiltza egungo estatutuak dituen funtsezko bi arazo konpontzeko: Katalunia nazio gisa definitzea eta finantzaketa. Orain lehen ez zegoen aukera dago".

**Joan Puigcercos**
2006-03-26

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Larraitz Zeberio, Mireia Bikuña, Jon Berezibar eta Arantzazu Ezkibel

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Jon Iraegi | **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Eskubaloian, Verkol Aloñako neskak ez diote mailari eutsiko | 14
• Saskibaloian Mugarri Alkesa 73-77 nagusitu zitzaion Urdanetari | 15



**Oriol Saperas Epsilon Euskadi taldeko hezkuntza arduradunarekin jardun gara** | 17

**PREFERENTE MAILA**

MONDRA
**0-0**
UDA

**Mondra** | Mondra, Mercader, Loiti, Markel, Laspiur, Ruben (Gotzon,83.min.), Ekain (Altzola,69.min.), Zubikarai (Muxi, 86.min.), Murua, Keixi eta Lopez (Garmendia, 75.min.).

**UDA** | Gaizka, Torres (Gus, 5.min.), Joseba, Unamuno, Gorka, Arenatza, Endika (Haritz, 63.min.), Hegoi (Kepa, 76.min.), Arriaga, Orueta (Juan, 85,min.) eta Espinosa (Imanol, 55.min.).

**Golak:** Ez zen golik egon.

**Epailea** | Belmonte jauna. Txartel ugari atera zituen, batez ere Modrako jokalariei. Baina orokorrean lan txukuna egin zuen.

**Bestelakoak** | Ohikoak baino ikusle gehiago hurbildu ziren Atxabalpera derbia ikustera. Aretxabaletako zaleak ere egon ziren harmailetan.

## Bikain

**UDA-KO ATEZAINA**
Partidu borobila jokatu zuen Gaizkak, UDAko atezainak. Batez ere lehen zatian. Mondrak izandako aukeren aurrean geldiketa oso onak egin zituen aretxabaletarrak.

## Kaskar

**GOGORTASUNA**
Derbietan lehia berezia egoten da taldeen artean. Eta jokoaren intentsitate hori jokalarien artean nabaritu zen, batez ere sarrera gogorretan. Falta zakarrak ikusi ziren Arrasaten.

## Esandakoak

"Lehenengo zatian ondo jokatu dugu, baina ez ditugu aukerak aprobetxatu. Bigarrenean UDAk hobeto jokatu du".

**JON MURUAMENDIARAZ** | MONDRAKO JOKALARIA

"Derbia gogorra izan da. Guri puntuak ez digu ezertarako balio; dena den, berdinketa emaitza zuzena izan da".

**JON UNAMUNO** | UDA-KO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Lehia bizia izan zuten bateko zein besteko jokalariek zelaian.

**FUTBOLA** | LEHIA GOGORRA IZAN ZEN JOKALARIEN ARTEAN

# Aukera garbiak izan arren, golik ez ibarreko derbian

*Derbi gogorra jokatu zen Atxabalpen: Mondra nagusi izan zen lehenengo zatian, eta UDAk aukera garbiak izan zituen partidua irabazteko*

Mireia Bikuña

Derbiak partidu bereziak direla aipatzen da beti, taldeen artean lehia berezia egoten baita. Mondrak eta UDAk gogor jokatu zuten zapatuan. Aukera garbiak sortu zituzten, baina ez ziren gai izan golik lortzeko. Puntuak garrantzitsuak ziren bi taldeentzat: UDArentzat, sailkapeneko goiko postuetan jarraitzeko eta Mondrarentzat etxeko bolada txarrarekin amaitzeko. Azkenean berdinketa izan zen nagusi.

**MONDRA HOBETO**
Lehenengo 45 minutuetan etxeko taldea izan zen nagusi. Mondrak gol aukera garbiak izan zituen. 21. minutuan Muruak aukera garbia izan zuen baina atezainak gelditu egin zuen baloia.

Lau minutu geroago Lopezek jokaldi bikaina egin zuen, baina Gaizka atezainak berriro ere geldiketa egin zuen. Rubenek eta Laspiurrek ere aukera garbiak izan zituzten, baina haiek ere ez zuten golik egin. Atsedenera iritsi aurretik UDAk ere izan zuen golik egiteko abagunerik.

**PARTIDU PAREKATUA**
Bigarren zatian partidua parekatu egin zen. Hasierako minututan UDA izan zen arriskua sortu zuena. Endikak egindako jaurtiketa bat kanpora joan zen eta Oruetak boleaz jotako baloi batek zutoinean jo zuen.

69. minutuan Mondra izan zen markagailuan aurretik jartzeko aukera izan zuena, baina Muruak ez zuen asmatu.

**UDAk ez zuen aprobetxatu Aloñak egindako hutsa**

**Azkeneko hiru partiduetan ez du irabazi Mondra taldeak etxean, Atxabalpen**

**SARRERA GOGORRAK**
Bestalde, partidu osoan jokalarien artean lehia gogorra izan zen nagusi. UDAko Torres jokalariak 5. minutuan zelaia utzi zuen min hartuta. Epaileak guztira sei txartel hori erakutsi zituen, horietako bi Mondra taldeko Muxiri.

Jokalari bat gehiago zuela aprobetxatuz, UDAk azken unean bi gol aukera garbi izan zituen hiru puntuak eskuratzeko.

## Preferente maila



ARTXIBOA

Datorren astean Aloñak Trintxerperen aurka neurtuko ditu indarrak Azkoagainen.

# Hondarribiak Aloñaren bolada ona eten zuen

HONDARRIBIA
**2-0**
ALOÑA MENDI

**Hondarribia** | Ruiz, Sanchez, Barran, Amezketa, Rodriguez, Arbelaitz, Muñoz (Balda, 68. min.), Pikabea, Narbaiza (Gonzalez, 56. min.), Gonzalez eta Elgorriaga (Retegi, 70. min.).

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Elgarresta (Moiua, 70 min), Garai (Idigoras II.a, 45. min.), Olalde, Barrena (Sanchez, 72. min.), Arregi I.a, Maiztegi, Igartua, Zubia, Aramendi (Astigarraga, 70. min.) eta Arregi II.a.

**Golak:** 1-0, Arbelaitz, (27. min.). 2-0, Elgorriaga (43. min.).

**Epailea:** Perez jauna.

Arantzazu Ezkibel

Hamahiru jardunaldi galdu barik egon eta gero, Aloñak zapatuan 2-0 galdu zuen Hondarribian.

Partiduaren lehenengo hamar minutuak onak izan ziren Aloñakoendako. Baloiaren jabetza hartu zuten oñatiarrek eta ondo jokatu zuten.

Denbora aurrera zihoan heinean, baina, Hondarribiak zelaian lekua hartu zuen eta estutzen hasi zen. Hala, 20. minutuan lehenengo gola egin zuten.

**BALOIA GALDU**

Oñatiarrek lerroen arteko tarteak ez zituzten ondo gorde. Hori dela, eta baloi asko galdu zituzten zelai erdian. Etxeko taldea, ondo kokatuta, huts horietaz baliatu zen aldea handitzeko.

Atsedena gainean zela, Hondarribiak bigarren eta azken gola egin zuen.

**TALDEAK JARRERA ONA**

Atsedenean, epaileak Elgarresta atezaina kaleratu egin zuen aldagelarako bidean zerbait esateagatik. Hortaz, 2. zati guztia Aloña jokari bat gutxiagorekin ibili zen.

Aloñako entrenatzailea pozik agertu zen 2. zatian taldeak egin zuen lanarekin: "Bat gutxiagorekin egon arren, taldea ondo kokatuta egon da eta gogoarekin jokatu du", esan zigun Aitor Oruetak.

Aloñak sailkapenean duen aldea murriztu egin den arren, oñatiarrek lider jarraitzen dute.

## Lehenengo erregionala

# Bergarak gogor estutu arren ez zuen golik egin

BERGARA
**0-0**
LAGUN ONAK

Arantzazu Ezkibel

Bergarak 0-0 egin zuen zapatuan etxean, Lagun Onak taldearen aurka. Mahoneroek aurkariek baino hobeto jokatu zuten, eta, emaitza hobea merezi izan zuten arren, puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten Josu Zubiaren mutilek.

Partidua ondo hasi zuen Bergarak. Atzealdean ondo kokatu ziren etxeko jokalariak eta joko txukuna egin zuten. Lagun Onakek zailtasunak izan zituen Bergarako atera hurbiltzeko orduan. Hori dela eta, gol aukera gutxi egin zituzten azpeitiarrek.

**ASIER KALERATUA**

Atsedenaren ostean, etxeko taldea indarberrituta zelairatu zen. Talde mahoneroak aurrealdean asko estutu zuen, baina baloiak ez zuen azpeitiarren sareetan sartu nahi izan.

25. minutuan, epaileak etxeko taldea jokalari bat gutxiagorekin utzi zuen. Hori dela eta, Bergarak jokoaren intentsitatea jaitsi egin behar izan zuen.

**ZUMAIAKO ETXEAN**

Sailkapenari begira, Bergarak 3. postuan jarraitzen du 55 punturekin. Datorren astean, 2. postuan dagoen Zumaiako hartuko dute mahoneroek etxean. Josu Zubiak esan digunez, garrantzi handiko partidua da, irabaziz gero 2. postua lortuko lukete-eta.



JOSETXO ARANTZABAL

Asierrek zelaia utzi behar izan zuen 2. zatian.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Allerru-Zestoa | 4-1 |
| Mondra-UDA | 0-0 |
| Berio-Touring | 2-2 |
| Irun 1902-Pasaia | 1-0 |
| Anaitasuna-Orioko | 4-0 |
| Hondarribi-Aloña Mendi | 2-0 |
| Trintxerpe-Idiazabal | 2-0 |
| Hernani-Beti Gazte | 3-1 |
| Zarautz-Mutriku | 1-0 |
| Ordizia-Real Union | 1-4 |

**HURRENGOAK**

- Real Union-Allerru
- Zestoa-Mondra
- UDA-Berio
- Touring-Irun 1902
- Pasaia-Anaitasuna
- Orioko-Hondarribia
- Aloña Mendi-Trintxerpe
- Idiazabal-Hernani
- Beti Gazte-Zarautz
- Mutriku-Ordizia

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. **Aloña Mendi** | **64** | 30 | 20 | 6 | 4 | 61 | 33 |
| 2. **Real Union** | **58** | 30 | 18 | 8 | 4 | 65 | 34 |
| 3. **UDA** | **56** | 30 | 16 | 6 | 8 | 52 | 27 |
| 4. **Ordizia** | **56** | 29 | 18 | 9 | 2 | 51 | 33 |
| 5. **Zarautz** | **53** | 30 | 15 | 7 | 8 | 56 | 32 |
| 6. **Pasaia** | **48** | 30 | 12 | 6 | 12 | 56 | 41 |
| 7. **Trintxerpe** | **47** | 30 | 14 | 11 | 5 | 50 | 45 |
| 8. **Mutriku** | **45** | 30 | 13 | 11 | 6 | 38 | 38 |
| 9. **Hondarribia** | **45** | 30 | 13 | 11 | 6 | 37 | 44 |
| 10. **Touring** | **44** | 30 | 12 | 10 | 8 | 41 | 38 |
| 11. **Hernani** | **41** | 30 | 11 | 11 | 8 | 41 | 42 |
| 12. **Mondra** | **40** | 29 | 11 | 11 | 7 | 39 | 30 |
| 13. **Berio** | **38** | 30 | 10 | 15 | 5 | 39 | 42 |
| 14. **Anaitasuna** | **35** | 30 | 10 | 15 | 5 | 39 | 42 |
| 15. **Irun 1902** | **31** | 30 | 8 | 15 | 7 | 39 | 57 |
| 16. **Idiazabal** | **30** | 30 | 7 | 14 | 9 | 33 | 50 |
| 17. **Zestoa** | **30** | 30 | 7 | 14 | 9 | 33 | 5 |
| 18. **Orioko** | **25** | 30 | 5 | 15 | 10 | 36 | 68 |
| 19. **Allerru** | **20** | 30 | 4 | 18 | 8 | 29 | 65 |
| 20. **Beti Gazte** | **19** | 30 | 3 | 17 | 10 | 31 | 54 |

## Bigarren erregionala

# Garaipenak behar ditu Antzuolak igoera lortzeko

ANTZUOLA
**2-2**
SORALUZE

Mireia Bikuña

Partidu guztian markagailuan atzetik egon ondoren Antzuolako futbol taldeak berdinketa lortu zuen norgehiagoka amaitzeko bi minutu falta zirela, Jon Godoik egindako golari esker. Joko ona egin zuen Antzuolak hasierako minutuetan.

Baina markagailuan Soraluzek agintzen zuen. Talde bisitaria 0-1 eta 1-2 egon zen aurretik berak egin baitzituen partiduko lehenengo bi tantoak. Etxeko taldeak lan handia eginda lortu zuen partidu amaieran emaitza txukuntzea.

**PUNTU BAT GUTXI DA**

Berdinketa ez da ona Antzuolarendako. Aurten mailaz igotzea dute helburu eta horretarako jokoan dituzten puntu guztiak beharrezkoak izango dituzte. "Igoera lortu nahi badugu garaipenak behar ditugu. Berdinketek ez dute askorako balio", esan digu taldeko delegatu Pablo Olaldek.

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2006ko martxoaren 27a

• LEHENENGO TERRITORIALA. IGOERA TXAPELKETA

# Igoera fasean bizirik segitzeko garaipena

*Ford Mugarrik etxean jokatuko dituen partiduetan dauka igoera lortzeko gakoa*



JOSETXO ARANTZABAL

Kepa Isasmendik lan bikaina egin zuen hegaleko postutik, zazpi gol sartu zituen.

**FORD MUGARRI**
**28-27**
**GUSLA URDULIZ**

**Ford Mugarri** | Egaña, Valle, J. Eskibel (2), A. Eskibel, Gartzia, Urrutia, Gartzia, Ortiz de Mendibil, Murillo, Lonbide (5), Calleja (9), Altzelai (2), Isasmendi (7) eta Otegi (3).

**Gusla Urduliz** | Uriarte, Ugarte (6), Izquierdo 85), Ziriero (2), Turiel (59), Momaña (4), Gomez (2), Martin (2), Goikomia, Priego (1), Albizuri, Barbarias, Artabe eta Juaristi.

**Golak bost minuturo:** 2-1, 4-3, 7-5, 9-9, 11-9, 13-12. Atsedena. 14-16, 17-17, 21-20, 26-25, 27-26, 28-27.

Mireia Bikuña

Ezinbesteko garaipena eskuratu zuen zapatuan Ford Mugarrik. Igoera faseko lehen partidua galduta, derrigorrezkoak ziren puntuak. Azken segundora arte defendatu zuen garaipena etxeko taldeak.

Partiduaren lehen minutuetan bi taldeek erasoan lan ona egin zuten. Ford Mugarriko Isasmendi eta Callejak gol asko sartu zitutzten hegaleko postuetatik. Etxeko taldeak aldea hartu zuen markagailuan.

Lehenengo zatian markagailuko errentarik handiena hiru golekoa (8-5) izan zen etxeko taldearentzat. Eta atsedenean 13-11 zen nagusi Arandoaren taldea.

**BERDINKETA ASKO**

Bigarren zatiko lehen 20 minutuetan partiduak erritmo bizia izan zuen. Markagailuan berdinketak nagusi izan arren, lehen zatian beste gol sartu zuten minutu horietan (26-25).

Penalti eta kanporaketa asko adierazi zitutzten epaileek. Andoni Arandok ere zigorra jaso zuen; hori horrela, azkeneko minutuak harmailetatik ikusi zituen jokalariak.

Tarte horretan urduritasuna nagusitu zen etxeko jokalari eta zaleen artean epaileek hartutako erabakiekin. Amaierako hamar minutuetan talde bakoitzak bi gol bakarrik sartu zituen. Urdulizek berdinketaren gola egiteko aukera izan zuen denbora amaituta zegoela.

• KOPA TXAPELKETA

## Aloñak 24-30 galdu zuen Urolaren aurka

Arantzazu Ezkibel

Aloñak etxean jokatu zuen kopako lehenengo partiduan ezin izan zuen irabazi. Izan ere, Urola nagusi izan zen eta 24-30 irabazi zuen partidua, inongo arazo barik.

"Partidura bederatzi jokalarirekin agertu gara. Lehenengo zatian eutsi egin ahal izan dugu, baina azkenean Urola nagusi izan da", adierazi zigun Iñigo Aranburu Aloñako entrenatzaileak.

Lehenengo zatian Aloñak ondo jokatu zuen. Erasoan gogor aritu zen etxeko taldea eta atsedenean 17-12 aurretik zen. Bigarren zatian, berriz, Urolak erritmoa indartu eta markagailuan aurre hartzea lortu zuen.

• KOPA TXAPELKETA

## Garaipen zabala kopa txapelketa hasteko

Mireia Bikuña

Kontraerasoak aprobetxatu zituen Bergarako taldeak Donibaneren aurkako partidua irabazteko. Amaieran markagailuan izan zen aldeak ez zuen garbi erakutsi Bergarak garaipen samurra lortu zuenik, "Lan handia egin dugu garaipena lortzeko. Ez da partidu erraza izan", esan digu Jon Zangituk, Bergara eskubaloi taldeko atezainak.

**KOPA TXAPELKETA**

Hala, kopa txapelketa garaipenarekin hasi dute etxekoek. Eta taldeko atezainak azpimarratu digu "taldearen asmoa txapelketa horretan lan ona egitea dela. Ea zerbait lortzeko gai garen".

• NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

# Aloñako neskak mailaz jaitsi dira

**VERKOL ALOÑA**
**16-18**
**IES CONSTRUCCION**

**Verkol Aloña** | Guridi, Goñi (2), Suarez (1), Larrañaga (1), Unamuno (3), Zubeldia (2), Ruiz (1), Quintas, Arteaga (4), Manuel (2), Orueta eta Moreno.

**IES Construccion** | Viteri (5), Fernandez (2), Leal, Blanco, Yarritu, Serna, Viteri, Viteri (3), Fernandez (5), Alzola, Dieguez (2) eta Etxeberria (1).

**Golak:** atsedenean 7-9.

Arantzazu Ezkibel

Zapatuan etxean galdu eta gero Aloñako neskak mailaz jaitsiko dira. Datorren urtean Euskadiko Txapelketako B mailan jokatuko dute oñatiarrek.

**DEFENTSAN ONDO**

Zapatuan, Zubikoan, partidu polita jokatu zuten Benitoren neskek. Defentsan lan ona egin zuten, baina aurrealdean huts batzuk izan zitutzten oñatiarrek.

Lehenengo zatiaren amaiera aldera Aloñak erritmoa jaitsi zuen eta ondorioz atsedenera 7-9 galtzen iritsi ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak azken postuan amaituko du liga.

2. zatian, Aloñak defentsa aldatu beharra izan zuen gasteiztarren erasoa geratzeko. Azken minutuetan, talde guztia aurrean jarri zen presioa eginez, baina ez zuten partidua berdintzerik lortu. Datorren astean, Bilbon amaituko dute liga.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Verkol Aloña-I.E.S Construcción | 16-18 |
| **IGOERA TXAPELKETA. MUTILAK** | |
| Ford Mugarri- Gusla Urduliz | 28-27 |
| **KOPA. 1. ETA 2. TERRITORIALA** | |
| Arrikrutz Oñatiko Kobak-Urola Agip | 24-30 |
| Arrasaste Eskubaloi-Leizaran | atzeratua |
| Bergara-Donibane | 36-29 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Usurbil- Aloña Mendi | 35-22 |
| Aloña Mendi-Amenabar Zarautz | 23-24 |
| Gatz Museoa Jakion-Elgoibar | 27-26 |
| Bergara-Usurbil | 24-29 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Cometel Elgoibar-Verkol Aloña | 15-16 |
| Urola Premank-Bergara | 12-21 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Elgoibar-Gatz Museoa Jakion | 20-26 |
| Urola Azti-Aloña Mendi | 25-18 |

• NESKE BIGARREN MAILA

# Astigarragak hobeto jokatu zuen

*Partidua Intxaurtxueta kiroldegian jokatu zen arren, Eskoriatzak kanpoko talde bezala jokatu zuen. Azken postuan jarraitzen dute*

**ASTIGARRAGA**
**62-51**
**ESKORIATZA**

**Astigarraga** | Landa (18), Rodriguez (7), Alkain (5), Parrero (2), Montero (4), Marin (10), Bea (5), Odriozala (3), Hervalejo (4) eta Arrizabalaga (4).

**Eskoriatza** | Serrano, Laborda, Gomez (2), Caceres (2), Murillo (15), Usabiaga (6), Soriano, Exposito (7), Etxeberria (6), Agirrezabalaga (6) eta Alarcia (7).

**Laurdenatako emaitzak:** Lehenengo laurdena, 6-10. Bigarren laurdena, 23-20. Hirugarren laurdena, 42-31. Laugarren laurdena, 62-51.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzako neskek 62-51 galdu zuten Astigarragaren aurka zapatuan. Norgehiagoka intentsitate handikoa izan zen.

Astigarraga sailkapeneko 4. postuan dago eta zapatuan, Intxaurtxueta kiroldegian argi utzi zuten zergatik dauden sailkapeneko goiko postuetan.

Partidua ezin hobeto hasi zen etxekoentzat. Lehenengo partzialean 6-10 aurretik ziren Eskoriatzakoak. Partidua erritmo onarekin hasi zuten, Jabi Corbalen neskek. Kantxan lekua ondo hartu zuten eta defentsan nagusi izan ziren. Taula azpian egindako joko onari esker, errebote asko eskuratu zituzten eta horrek kontraerasoan ateratzeko aukerak eman zien eskoriatzarrei.

**MARKAGAILUAK BUELTA EMAN ZUEN INTXAURTXUETAN**

Bigarren laurdenetik aurrera, baina, partiduak beste bide bat hartu zuen Eskoriatzako taldearentzat.

Astigarragak nagusitasuna erakutsi zuen eta partiduaren jabe egin zen. Astigarragako neskek lan ona egin zuten defentsan. Hori dela eta, Eskoriatzakoei zaila egin zitzaien barneratze eraginkorrak egitea. Hain zuzen ere, bigarren laurdeneko partziala 17-10 izan zen.

Jabi Corbalen taldea saiatu zen markagailuko aldea murrizten, baina ez zuten zorterik izan.


JOSETXO ARANTZABAL
Eskoriatzak azken postuan jarraitzen du.

3. eta 4. laurdenetako partzialak hauek izan ziren: 19-11 eta 20-20.

Eskoriatzakoek ez zuten animu faltarik izan, kiroldegira hurbildutako zaleak taldearen gainean izan ziren-eta une oro.

**SASKIRATZE HIRUKOITZAK**

Partiduaren azken laurdenean Eskoriatza 11 puntu atzetik zen. Aldea txikitu nahian, kanpoko jaurtiketak egin zituzten etxeko neskek. Hala, Inma Murillo eta Yaiza Expositok saskiratze hirukoitzak lortu zituzten. Dena den, emaitza borobildu zuten arren, ez zuten garaipena lortzerik izan.

Eskoriatzakoei sei jardunaldi geratzen zaizkie liga amaitzeko. Liga hasiera ezkero sailkapeneko azken postuan daude Jabi Corbalen neskak, eta gogor lan egin beharko dute, helburua mailari eustea baldin bada.

• 1. MAILA, IGOERA TXAP.

## Amets egiten jarraitzeko garaipena

Mireia Bikuña

Partidua amaitzeko lau minutu falta zirela, Mugarri Alkesa sei puntu zen atzetik markagailuan. Hala, defentsa sendotu egin zuten partiduari buelta emateko. Urdanetari irabaztea beharrezkoa zen igoerarekin ametsetan jarraitzeko (73-77).

**ASKO SUFRITU ZUTEN**

Arrasateko taldea partiduaren minuturik gehienetan markagailuan atzetik ibili zen. Erasoko jokoan ez zuten ideia garbirik izan zapatuko norgehiagokan.

• SENIOR MUTILAK

## Ondo hasi arren, Candyk 62-65 galdu zuen

Arantzazu Ezkibel

Atsedenean lau puntu aurretik ziren arren bergararrak, ez zuten azkenera arte aldeari eusten jakin eta galdu egin zuten.

Lehenengo laurdena txarra izan zen jokoari dagokionez. Bi taldeek gaizki gaizki jardun zuten. Partziala 7-6 izan zen etxekoen alde.

Atsedenaren ostean, talde donostiarra estutzen hasi zen eta markagailuari buelta eman zion. Poliki-poliki aldea handituz joan zen. Azkenean hiruko saskiratzeak egin zituzten bergararrek, baina ez zuten berdintzerik izan.

• SENIOR MUTILAK

# Partidu txarra egin zuen Aloñak

**ALOÑA MENDI**
**55-65**
**IRUN BASKET**

**Aloña Mendi** | Goitia (4), Madariaga (12), Otamendi (4), Arregi, Zabaleta (7), Anduaga (12), Amado (2), Gorostiaga, Garcia, Anton (5), Mendiola eta Madinabeitia (9).

**Irun Basket** | Mora (9), Sagues (12), Martinez, Santos, Llobregat, Dominguez (30), Rodriguez (8), Villanueva, Panizo eta Martin.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena, 13-17. Bigarren laurdena, 30-29. Hirugarren laurdena, 47-46. Laugarren laurdena, 55-65.

Arantzazu Ezkibel

Norgehiagoka txarra jokatu zuen Aloñak zapatuan Zubikoan, eta, ondorioz, 55-65 galdu zuten oñatiarrek.

Partidua hasieratik jarri zitzaion aldapa gora Aloña Mendiri. Lehenengo laurdenean 13-17 ziren atzetik etxekoak. Partidu txarra jokatu zuen Aloñak, bai defentsan eta bai erasoan ere huts asko egin zituzten-eta oñatiarrek.

Bestalde, taularen azpian nagusi izan ziren Irun Basketeko jokalariak errebotea hartzeko orduan.


JOSETXO ARANTZABAL
Aloña sailkapeneko 4. postuan dago 14 punturekin.

**IDEIARIK GABEKO TALDEA**

Gorkaren ustez, taldea ideia barik aritu zen Zubikoa kiroldegian. Bigarren laurdenean, hasierako bi minutuak izan ziren onak, baina gutxirako balio izan zuten. Azkenean, irundarrak nagusitu ziren.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **IGOERA TXAPELKETA. 1. MAILA** | |
| Urdaneta-Mugarri Alkesa | 73-77 |
| **NESKEN BIGARREN MAILA** | |
| Biurrarena Astigarraga-Eskoriatza | 62-51 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-Irun Basket | 55-65 |
| Candy Bergara-S.T.L. Egaña | 62-65 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Aloña Mendi- Alde Zaharra | 44-38 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Mugarri Alkesa-Take Zarautz | 90-57 |
| Carnicas San Marcial-Aloña Mendi | 20-00 |
| Araneta-Hernani Atletico | 40-52 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Bera Bera Ulia-Aloña Mendi | 57-49 |
| Aldapeta-Eskoriatza | 29-24 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Easo "A"-Aloña Mendi | 119-33 |
| Mugarri Alkesa-La Salle | 65-58 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Carnicas San Marcial | 46-70 |

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2006ko martxoaren 27a

# Eskola kirola

**BERGARA**

## "Beti aurkari bezala jardun barik, halakoekin elkar ezagutzen dugu"

*Astero txandaka-txandaka, Bergarako neska-mutikoen txanda heldu zen zapatuan*

*Labegaraieta kiroldegian eta Mariaren Lagundian aurkitu genituen gaztetxoak*

*Joko alternatiboetan jardun zuten Mariaren Lagundira hurbildu zirenak*

Geaxi Ezpeleta

Betiko kirolez gain, gaztetxoen arteko topaketak ere antolatzen dituzte Bergarako eskola kiroleko arduradunek. Han, hainbat taldetako neska-mutikoek nahastuta jardun zuten. Bada, joko alternatibo horien inguruan hitz egin genuen Maria Lagundiko gimnasioan zeuden lagunekin, eta askotariko iritziak bildu genituen: "Partiduak jokatzen hobeto pasatzen dugu", zioten batzuek. Beste batzuek, aldiz, alderdi positiboaz mintzatu zitzaizkigun: "Tankera horretako jokoek normalean aurkari direnekin talde berean jokatzeko aukera ematen digute, elkar ezagutzeko".

Hala ere, iritziak iritzi, gaztetxo guztiak ikusi genituen joko eta taldekide desberdinez gozatzen arduradunen gidaritzapean. Nahiz eta aitortu beharra dagoen partiduetan baino kale gehiago egiten dutela neska-mutikoek egun horietan.

**ANIZTASUNA DA TOPAKETEN HELBURUA**

Gaztetxoen arteko topaketa horien bidez neska-mutikoek elkar ezagutzeaz gain, joko desberdinekin gozatzen ikastea dute helburu arduradunek. "Gainera, oso ondo dago euren arteko lehiakortasuna murrizteko", zioen arduradunetako batek. "Horregatik saiatzen gara sarritan egiten".



GEAXI EZPELETA

**San Martin C.** Gorka, Iker, Asier, Igor, Unai, Jon, Kepa, Oier eta Julenek osatzen duten taldea.



GEAXI EZPELETA

**Hainbat talde.** Julen, Amaia, Asier, Patxi, Endika eta Lide, lau taldetako kideak, elkartu ziren joko alternatiboetarako taldea osatzeko.



GEAXI EZPELETA

**Hainbat talde.** Xabier, Jon, Lander, Cecilia eta Asierrek –hainbat taldetako gaztetxoak– joko alternatiboetarako taldea osatu zuten.




GEAXI EZPELETA

**San Martin.** Kattalin, Maider, Lierni, Maialen, Leire, Ainhoa eta Judithek jokatzen duten taldea.

### • JOKO ALTERNATIBOEN INGURUAN GALDETU DIEGU GAZTETXOEI



**ASIER, JON, LANDER ETA XABI** | ARANZADI 5 ETA 6

"Guk nahiago dugu partiduak jokatzea joko alternatiboak egitea baino. Gure taldearekin jokatu eta irabaztea dugu gogoko. Joko hauetan ez du inork irabazten. Dena den, hauetatik politena igerilekukoa da".



**JUDITH ETA LIERNI** | SAN MARTIN

"Gustuko ditugu tankera honetako jardunaldiak. Beste taldeetako jendea ezagutzen baitugu, beti elkarren aurka jokatzen jardun beharrean".



**AINHOA ETA LEIRE** | SAN MARTIN

"Betiko kirolez gain beste joko batzuk ezagutzeko aukera ematen digunez, gustura jarduten dugu. Gainera, beste talde batzuetako lagunak egiten ditugu".



**UNAI** | ARANZADI 5

"Nahiago dut partiduak jokatu, hobeto pasatzen dudalako. Hau ere ez dago, gaizki, baina nahiago dut bestea".

GORLAKO IGOERA | UNAI ARANTZABAL IZAN ZEN AURRENA DEBAGOIENEKO TXIRRINDULARIEN ARTEAN

# Beñat Intxausti azkarrena Gorlan

*Gorlako Igoerak 32. edizioa bete du aurten: 23 urtez azpiko 117 ziklistak hasi zuten lasterketa; horietako bost debagoiendarrak*



JOSETXO ARANTZABAL

Beñat Intxausti bizkaitarrak Deskargako jaitsiera aprobetxatu zuen aurrera egiteko.

Mireia Bikuña

Tropelean atzeko postuetatik aurrera etorrita lortu zuen garaipena Beñat Intxaustik, Seguros Bilbao taldeko txirrindulariak. Izena eman zuten txirrindularien artean hura zen garaipena lortzeko hautagai nagusia eta pronostikoak bete egin ziren.

Lasterketa hasiera bizia izan zuen Gorlako Igoerak. Lehenengo kilometrotik ihesaldi saiakerak izan ziren. Hasierako kilometroen ondoren txirrindulari taldetxo batek egin zuen aurrera. Seguros Bilbao eta Caja Rural taldeko txirrindulariek hartu zuten lasterketa burua.

Txirrindulariak Gorlatik lehenengo aldiz igaro zirenean, Beñat Intxaustik 45 segundoko atzerapena zuen.

**SEGUROS BILBAO TALDEA LANEAN**

Gorlako Igoeraren irabazlearen taldekideak atzeratu egin ziren, Intxausti berriro tropelaren burura eramateko asmoz. Eta Deskargan behera aurreko taldearekin bat egin zuen.

Eta orduan, bakoitzak zituen indarren arabera banakako lehia hasi zen: "Azkeneko kilometroak oso gogorrak dira. Eta bakoitzak dituen indarrak neurtu behar ditu helmugara ondo iristeko", esan zigun Beñat Intxaustik.

Haren atzetik, bigarren eta hirugarren lekuetan Alfus taldeko Julen Goikoetxea eta Alberto Gartzia helmugaratu ziren. Bi txirrindulari horiek denbora bera egin zuten helmugan.

**DEBAGOIENDARRAK**

Amateur mailan ari diren Debagoieneko txirrindulariak ikusteko aukera izan zuten Gorlara hurbildutako zaleek. Unai Arantzabal, Joseba Itziar, Gurutz Larrea, Eddy Perez eta Kepa Varela izan ziren irteera hartu zutenak.

Helmugan azkarrena Unai Arantzabal bergararra izan zen, 29. lekuan iritsi zen."Lasterketa oso gogorra izan da. Dena dela, egindako igoerarekin gustura geratu naiz", esan zigun Unai Arantzabalek.

## Emaitzak

**SAILKAPENA**

**LEHENENGOAK**

| | |
|---|---|
| 1. Beñat Intxausti Elorriaga | (2:32:10) |
| 2. Julen Goikoetxea Garate | (2:32:27) |
| 3. Alberto Gartzia Oblanka | (2:32:27) |
| 4. Mikel Nieve Iturralde | (2:32:27) |
| 5. Guillermo Lana Bakedano | (2:32:27) |
| 6. J. B. Toribio Alkolea | (2:32:27) |
| 7. F. J. Etxarri Marin | (2:32:27) |
| 8. Hector Gonzalez Baeza | (2:32:27) |
| 9. I. G. Lizarraga Nogales | (2:32:42) |
| 10. Igor Romero | (2:33:05) |

**LEHEN DEBAGOIENDARRAK**

| | |
|---|---|
| 29. Unai Arantzabal | (2:36:40) |
| 32. Gurutz Larrea | (2:38:04) |
| 38. Kepa Varela | (2:41:11) |
| 40. Joseba Itziar | (2:43:28) |
| 55. Eddy Perez | (2:48:05) |

## • TXIRRINDULARIEN IRITZIAK PROBAREN ONDOREN



**BEÑAT INTXAUSTI |**
SEGUROS BILBAO
"Hasierako kilometroetan nahiko lasai egon naiz. 45 segundoko atzerapena izan dut lehen igoeran. Deskargako jaitsiera aprobetxatu dut aurrera egiteko".



**UNAI ARANTZABAL |**
AZPIRU INMOBILIARIA
"Oso gustura geratu naiz gaurko igoerarekin. Denboraldiari begira Lehendakari Txapelketako taldekoa da sailkapenean postu ona lortzea da taldearen helburua".



**GURUTZ LARREA |**
AZPIRU INMOBILIARIA
"Nire helburu nagusia lasterketa amaitzea zen. Kategoria horretan maila oneko txirrindulariak daude eta abiadura handiagoan egiten dira lasterketak".

## Miguel Minguez bilbotarra nagusi Uzarragan



**Miguel Minguez, Lubeco taldekoa, izan zen azkarrena Uzarraga gainean. Txirrindulari bilbotarrak 2:04:13ko denbora egin zuen helmugan. Bigarrena Caja Ruraleko Julen Gonzalez izan zen eta hirugarrena Jon Lazkano, Laxy taldekoa. Talde onenaren saria Lubecorentzat izan zen.**

**Aiastui txirrindulari elkarteak antolatutako proban 136 txirrindularik hartu zuten parte. Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako taldeak aritu ziren tartean. Helmugara 67 iritsi ziren.**





SIMPLY CLEVER

ŠKODA AUTO

**Škoda**Fabia **berria** SPIRIT

DEN-DENA DAUKA, 9.500 EUROGATIK.

1. Aire girotua. 2. CD irrati 8 bozgorailuduna. 3. ABS + MRS. 4. Airbag bikoitza. 5. Ixte sistema zentralizatua, urrutiko kontrolagailuduna. 6. Aurreko beiren igogailu elektronikoa. 7. Bost ate. 8. Abiadura kontrolagailua. 9. Konputagailua. 10. Eskularru kutxa girotua. 11. Latak gordetzeko hozkailua, bolantearen azpian. 12. Altuerari dagokionez, egokitu egin daitekeen gidari eserlekua. 13. Atzeko eserleku eta horien bizkarralde tolesgarriak eta 1/3, 2/3 zatituak. 14. Altuerari eta sakonerari dagokionez, egokitu egin daitekeen direkzio zutabea. 15. Karrozeriaren koloreko atzerako ispiluak. 16. 14"ko altzairuzko hagunak, 185/60 R14 pneumatikodunak. 17. Karrozeriaren koloreko kolpe leungailua, babes moldura beltza duena.

**Škoda**Fabia 1.2 64 ZP Spirit. Penintsularako eta Balearretarako gomendatutako salneurria. Garraioa, zergak, eskaintza honen beherapena eta Prever plana barne. Serie mugatua, 1.000 ale. 1.2 64 ZP eta 1.9 SDI 64 ZP motorreko modeloak. Fabia gamaren batez besteko kontsumoa: 4,0-7,5 l/100 km. $CO_2$ isurketak 122-180 g/km. Irudiko modeloa ez da iragartzen dena.

Bezeroarentzako arreta: 902 45 65 75, www.skoda.es

**UDALAITZ** Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**LEHENENGO MAILA**

**JOSE ANGEL FERNANDEZ** | ANTZUOLA FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

# "Alavesek ez du atzealdean daudenen moduan jokatzen"

Xabier Urtzelai

**Athleticeko zale izanda, azkenaldian baduzu pozik egoteko motiboa.**

Emaitzen aldetik bai, baina oraindik ere asko ari gara sufritzen. Egia da hasi garela arnas apur bat hartzen, baina jaitsiera postuak oso gertu daude oraindik.

**Europara begira dagoen taldea izateko, ezer gutxi erakutsi zuen Osasunak.**

Uste dut horrelako derbietan sailkapenak ez duela horrenbeste garrantzia. Egia esateko, partidu pobrea izan zen, eta Osasuna ere motel ikusi nuen, anbizio edo garaipen gose barik. Ez zuten orain arte jokatu duten moduan jokatu.

**Bazen ordua Yestek duena erakusteko.**

Bai, azkeneko partiduetan bera izan da protagonista. Jokalari oso intermitentea da, baina badirudi azkenaldian ondo dakiela zer egin behar duen, eta onartu du gurditik tira egin behar duela. Egia esateko, ez dugu askoz ere gehiago, hortaz, horiek bultza egiten ez badute... jai dugu.

**Bakerok, sistema aldatuta, taldearen defentsa sendotu gura izan zuen, baina horrela ere ez.**

Ikusi nuen Realaren partidua, eta egia esateko... Badirudi jokalari txiletarra dela taldearen egoeraz jabetuta dagoen bakarra. Bakerok hainbat gauza esan ditu astean zehar, eta badirudi bakarrean ere ez diotela kasu egin.

**Datorren astean Alavesek Athletic hartuko du, eta Realak Malaga; zelako jardunaldia.**

Athleticek ezin du galdu. Orain heldu diote bolada onari, eta Gasteizen galduz gero, posible da berriro ere bolada txarrera bueltatzea. Eta, Realaren partiduaren gainean ez dago ezer esateko. Irabazi egin behar dute, derrigor, datozen partiduetako egutegia ez da-eta bat ere samurra.

**Amaitzeko, egin Bigarren Mailara jaitsiko diren taldeen gaineko porra.**

Uste dut lau talderen arteko kontua dela. Adibidez, ez dut uste Alaves jaitsi egingo denik, talde horrek ez du-eta atzealdean daudenen moduan jokatzen; ez dira kikiltzen, aurrera egiten dute. Horrenbestez, Cadizen, Betisen, Malagaren eta Realaren artean egongo da kontua.



GOIENKARIA

Madril-Bartzelona klasikoan, Bartzelonaren alde egingo du Jose Angelek.

**"Badirudi Yestek onartu egin duela gurditik tira egin behar duela"**

## Harmailatik



## Hodei gero eta ilunagoak

Xabier Urtzelai

**Burumakur.** Gaur, berriro ere, Realeko jokalariak burumakur azalduko dira egunkarietako kroniketan. Aurtengo denboraldian hori da behin eta berriro ikusten ari garen irudia. Dagoeneko, Reala jarraitzen duten argazkilariek ondo ikasi dute lezioa: 89 minutu estadioaren ondoko tabernan igaro, garagardoa eskuan. Eta, azkeneko minutuan barrura egin, Realeko jokalariak aldagelara zelan erretiratzen diren erretratatzera. Bada buruak altxatzeko ordua.

**Benetako guda, orain.** Joan zen asteburuan egunkariek *benetako guda*-ren ordua iritsi zela zioten. Ez. Aste negargarria izan eta gero, orain hasten da Realaren benetako guda, Malagaren kontra, etxean. Hain zuzen ere, aste barruan Murtziara egingo dute Realekoek, lasaitasun eta kontzentrazio bila. Atzoko partidua baino lehenago, Bakerok esan zuen horrelako egoeratan taktiken gorabeherak baino garrantzitsuagoa dela taldearen animua errekuperatzea; bat nator berarekin, baina zenbat lan izango duen La Mangan... Meho Kodro ere izango da bertan, laguntzaile gisa. Entrenatu beharrean jokatzerik balute...

**Datua:** Reala hirugarrena da *fair play* edo joko garbiaren sailkapenean, zer-eta Bartzelonaren eta Valentziaren atzetik; martxa horretan Viafarak konponduko du hori.

**Ederra.** Datorren jardunaldia. Euskal taldeek duten beharragatik ez balitz, gozatu egingo genuke Madril-Bartzelona edo Betis-Sevilla derbiak dituen jardunaldiarekin. Derbi euskaldunean, gozamen gutxi. Eta Anoetan...

▲

**Athletic**
Azkeneko lau partiduetan 10 puntu eskuratu ditu talde zurigorriak. Badirudi, Clementeren mutilek ondo asmatu dutela noiz estutu behar den erabakitzerakoan.

▼

**Nihat**
Turkiarra bakarra ondo egin ezinka dabil, taldeak gehien behar duenean, gainera. Azkeneko partiduetan zelaian dagoenik ere ez gara konturatu, eta horregatik aldatu du entrenatzaileak.

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cadiz-Atletico | 1-1 |
| Racing-Zaragoza | 0-0 |
| Getafe-Reala | 2-1 |
| Espanyol-Alaves | 0-0 |
| Celta-Mallorca | 2-0 |
| Sevilla-Valentzia | 1-0 |
| R.Madril-Deportivo | 4-0 |
| Vila-real-Betis | 1-2 |
| Malaga-Bartzelona | 0-0 |
| Athletic-Osasuna | 1-0 |

**HURRENGOAK**

- Osasuna-Getafe
- Reala-Malaga
- Bartzelona-R.Madril
- Deportivo-Racing
- Zaragoza-Vila-real
- Betis-Sevilla
- Valentzia-Cadiz
- Atletico-Celta
- Mallorca-Espanyol
- Alaves-Athletic

**SAILKAPENA**

| | | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. | **Bartzelona** | **68** | 30 | 21 | 4 | 5 | 69 | 26 |
| 2. | **R.Madril** | **57** | 30 | 17 | 7 | 6 | 55 | 27 |
| 3. | **Osasuna** | **55** | 30 | 17 | 9 | 4 | 41 | 33 |
| 4. | **Valentzia** | **53** | 30 | 14 | 5 | 11 | 39 | 25 |
| 5. | **Sevilla** | **51** | 30 | 15 | 9 | 6 | 38 | 30 |
| 6. | **Celta** | **48** | 30 | 15 | 12 | 3 | 31 | 29 |
| 7. | **Deportivo** | **46** | 30 | 13 | 10 | 7 | 40 | 37 |
| 8. | **Vila-real** | **45** | 30 | 11 | 7 | 12 | 40 | 30 |
| 9. | **Atletico** | **43** | 30 | 11 | 9 | 10 | 40 | 29 |
| 10. | **Zaragoza** | **41** | 30 | 9 | 7 | 14 | 39 | 38 |
| 11. | **Getafe** | **40** | 30 | 11 | 12 | 7 | 40 | 40 |
| 12. | **Athletic** | **33** | 30 | 8 | 13 | 9 | 32 | 38 |
| 13. | **Racing** | **33** | 30 | 7 | 11 | 12 | 26 | 33 |
| 14. | **Betis** | **33** | 30 | 8 | 13 | 9 | 27 | 40 |
| 15. | **Espanyol** | **32** | 30 | 8 | 14 | 8 | 30 | 46 |
| 16. | **Alaves** | **31** | 30 | 7 | 13 | 10 | 31 | 45 |
| 17. | **Mallorca** | **31** | 30 | 7 | 13 | 10 | 29 | 45 |
| 18. | **Reala** | **28** | 30 | 8 | 18 | 4 | 36 | 57 |
| 19. | **Cadiz** | **27** | 30 | 6 | 15 | 9 | 21 | 38 |
| 20. | **Malaga** | **23** | 30 | 5 | 17 | 8 | 30 | 48 |

**Kiniela**

**KINIELA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | **Vila-real-Betis** | **2** |
| 2. | **Sevilla-Valentzia** | **1** |
| 3. | **Cadiz-Atletico** | **X** |
| 4. | **Celta-Mallorca** | **1** |
| 5. | **Espanyol-Alaves** | **X** |
| 6. | **Athletic-Osasuna** | **1** |
| 7. | **Getafe-Reala** | **1** |
| 8. | **Malaga-Bartzelona** | **X** |
| 9. | **Racing-Zaragoza** | **X** |
| 10. | **Numantzia-Valladolid** | **1** |
| 11. | **Xerez-Sporting** | **X** |
| 12. | **Hercules-Tenerife** | **1** |
| 13. | **Albacete-Murtzia** | **X** |
| 14. | **Gimnastic-Elche** | **1** |
| 15. | **R.Madril-Deportivo** | **1** |

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Oriol Saperas kataluniarra Epsilon Euskadi taldean ari da heziketa saileko arduradun lanetan. Ingeniaria da eta motor teknikoetan espezialista. Azken urteak Frantzian eman ditu, Renault-en lanean. Hantxe zela, bere eginkizuna autoak diseinatzea izan zen. Eguen arratsaldean Arrasaten izan zen Mondragon Unibertsitatekoek gonbidatuta, autoen gaineko masterra ikasleei aurkezten. Saperasekin izan ginen autoez eta autoek gurean duten zaleei buruz berbetan.

**ORIOL SAPERAS** | EPSILON EUSKADI TALDEKO HEZIKETA ARDURADUNA

# "Zirkuitu baten beharra ikusten dugu Euskal Herrian"



ARANTZAZU EZKIBEL

Oriol Saperas Arrasaten izan zen, METCA masterra ikasleei aurkezten.

Arantzazu Ezkibel

**2003an sortutako taldea izanik 2005ean World Series irabazi zenuten. Lan gogorra egin behar izan duzue?**

Bai, ez dago beste sekreturik. Gogor egin behar da lan eta horretaz gain lantalde egokia aukeratu behar da. Guztiok helburu bera izan behar dugu eta horretan gogor jardun.

Esperientziadun jendea dugu taldean eta horrek ere asko lagundu digu. Eta azkenik, gure lana azaleratuko duen pilotu baten beharra ere ezinbestekoa da.

**Zuen helburuetako bat Le Mans-eko 24 orduetan parte hartzea dela esan duzue. Zertan oinarritzen da hori?**

Gaur egun, hainbat auto lasterketatan parte hartuko duen auto bat egin nahi baduzu, Le Mans-eko lasterketak bakarrik ematen dizu aukera hori egiteko. Indianapolis oso urrun geratzen da eta 1-Formula, oraingoz, eskuraezina da. Le Mans-ek duen araudiaren arabera, ingeniariek askatasun osoa dute autoa diseinatzeko orduan. Araudi irekia du lasterketa horrek; beraz, gure autoarekin jarduteko bide egokiena dela iruditzen zaigu.

Gure helburua 2007an Le Mansen jarduteko autoa egitea da. Automobil itxia izango da. Beste enpresa batzuekin batera egingo dugun autoa izango da; guk diseinu orokorra egingo dugu, baina motorra Ingalaterrako enpresa batena izango da. Kaxa, berriz, Austriako enpresa batena. Epsilon Euskadin diseinu orokorra egingo dugu Joan Travisen zuzendaritzapean.

**Azkoitian zer egiten duzue, autoa diseinatu ala egin ere hantxe egiten da?**

Azkoitian autoa diseinatu, kalkulatu eta sortu egiten da. Gero, autoaren zati batzuk beste enpresa batzuetatik ekartzen ditugu; lehen esan dugun bezala, motorra eta kaxa, esaterako.

Auto bat ekoizteko beharrezkoak diren baliabideez jabetzea akatsa izan daiteke. Beraz, sortzen ari garen auto honek, egunen batean, uste bezala, arrakasta lortuko balu, orduan Azkoitian ekoizten hasteko moduan egongo ginateke.

**Zuek egiten duzuen lanaren emaitza zertan ikusten du egunero autoa hartzen duen pertsona batek?**

Ingeniaritzan, autoen garapenaren inguruan egin diren aurrerapauso batzuk erabili izan dira gerora kaleko autoetan. Azken garapena autoen bolanteetan martxa aldaketa jartzea izan da. Aurrerapauso hori lehenengo, lasterketako autoek erabili zuten eta gero pasa da kaleko autoetara.

**Zer izan behar du pilotu batek ona izateko?**

Teknika ona izateaz gain, taldeari autoa nola dabilen helarazi behar dio auto gidari batek. Ingeniariek momentu oro autoa nola dagoen jakin behar dute, gerta daitezkeen arazoei erantzun egokia emateko. Beraz, komunikazio ona egon behar du.

**Ze zirkuitu duzu gustukoen?**

Monako. Berezia egiten duen zerbait du zirkuitu horrek. Hiri barruko zirkuituak beti dira bereziak. Han bertan lan egiteko orduan deserosoagoak izaten dira zirkuitu horiek, espazio aldetik batez ere, baina xarma berezia dute. Bilboko zirkuitua ere asko gustatu zitzaidan.

Zirkuituei dagokienez, zera aldarrikatu nahi dut: beharrezkoa ikusten dugu Euskal Herrian zirkuitu baten beharra. Beste herrialde batzuetan, hemengoa baino tradizio laburragoko herriak izan arren, zirkuitua dute. Gipuzkoa eta Bizkaian dugun lurraren orografia dela-eta zaila da zirkuitu bat egitea. Hala ere, beti aurki dezakegu leku aproposa gure beharretara egokituko den zirkuitua egiteko. Araban ez ditugu arazo hauek, beraz, leku egokia izan daiteke.

**Zenbat denbora pasatzen duzue etxetik kanpo?**

Asteburuan izango den lasterketa batean parte hartzeko, aste guztia eman behar duzu etxetik kanpo. Beraz, kontuak atera. Urtean 14 bat aste emango ditugu etxetik kanpo. Lan gogorra da, bizitza era bat dela esan dezakegu. Familia bat osatzen dugu.

**"Etxetik kanpo urtean 14 aste ematen ditugu. Autoen mundua gogorra da"**

**"Gidari on batek komunikatzen jakin behar du; egoera zein den helarazi behar dio taldeari"**

## METCA masterraren aurkezpena

**Epsilon Euskadik eta Mondragon Unibertsitateak batera eskaintzen duten masterra da METCA. Lasterketa autoen gaineko heziketa ematen da master horretan. 24 ikaslerentzako lekua dago masterrean. Aurtengoa ikasketa horiek eskaintzen dituzten 2. urtea da eta oso pozik daude lortzen ari diren emaitzarekin.**

**Eguenean, Epsilon Euskadik World Serietan erabiltzen duen autoa egon zen ikusgai unibertsitatean. Jende mordoa hurbildu zen autoa ikustera. Saperasek esan digunez, 1-Formulan erabiltzen diren autoak baino pixka bat txikiagoak dira World Serietakoak.**



# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Haize Berriak orkestrak ireki zuen zapatuan Arrasateko Udaberriko II. Musikaldia | 23
• Arrasateko Santa Marina auzoko liburutegi berritua aurkeztuko dute bihar, martitzena | 27

Harkaitz Canorekin zazpi bekatu nagusiez jardun dugu; nagikeriaz, batik bat | 26

CAPOEIRA ESKOLAK ETA ERAKUSTALDIA



JOSETXO ARANTZABAL

Lehenengo saioa Eskoriatzako pilotalekuan egin zuten egubakoitz arratsaldean. Talde polita batu zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

Bi irakasleren agindutara aritu ziren San Viatorren.



JOSETXO ARANTZABAL

Eskoletan capoeiraren jatorria eta funtsa ere azaltzen diete ikasleei.

**CAPOEIRA TALDEA** | ARRASATE ETA ESKORIATZAN EGITEN DITUZTE ESKOLAK

## Lagun gehiago zaletzeko saio bereziak egin dituzte

*Musikak, dantzak eta borroka-arteek erakarrita, gero eta jende gehiago dabil Brasildik ekarritako borroka mota horretara gerturatzen*

Jon Berezibar

Brasildik etorritako bi irakaslerekin saio bereziak egin dituzte ibarreko capoeira taldekoek asteburuan. Entrenatu eta, bide batez, zale gehiago erakartzeko asmoarekin ikastaro bereziak egin zituzten egubakoitz eta zapatuan. Capoeira gurean gehiago zabaltzea gurako lukete, eta horretarako, saioez gain, erakustaldia ere egin zuten egubakoitz gauean Arrasateko 3.60 aretoan.

Eskolak Arrasate eta Eskoriatzan ematen dira eta 30 bat lagunek osatzen dute taldea. Igor Ezpeleta eskoriatzarra da guztiaren sustatzailea eta astean hiru eskola ematen ditu. Asteburuko saioetarako, baina, betiko zaleez gain, hasiberrientzako eskola bereziak antolatu zituzten, taldea zabaltzeko asmoarekin. Egubakoitzean Eskoriatzan egindakoa, adibidez, haurrentzako berezia izan zen.

### IKUR KULTURALA

Igorrek berak azaltzen duenez, entrenatzen bera bakarrik hasi bazen ere, berehala lortu zuen taldea osatzea. 2005ean osatu zuten Eskoriatzan lehenengo taldea, eta gero eta ezagunagoa da capoeira gure artean ere. Afrikatik eroandako esklaboen borroka mota zen hasieran, baina gaur egun brasildarren ikur kulturaletako bat da. Perkusioa, dantza eta borroka nahastuta, era guztietako jendea erakartzen du capoeirak mundu guztian eta baita ibarrean ere. Horren erakusgarri egubakoitz gauerdian 3.60 aretoko erakustaldira gerturatu zen jendetza izan zen, eta horietako asko zapatuan. Kirolaz gain, historia eta kultura handia dauka capoeirak, eta horiek guztiak azaldu zizkieten erakustaldira jakin-minak deituta joan zirenei.

Ikasturtea hasita badago ere, izena emateko aukera dago oraindik. Eskoriatzan astelehen eta eguazten ilunkaretan batzen dira eta Arrasaten eguenetan. Informazio gehiago eta kuoten berri izateko bloga sortu berri dute *goiena.net*-en. Uneotan nagusi eta haurrentzako ikastaroak daude martxan.

## CAPOEIRA ESKOLAK ETA ERAKUSTALDIA




JOSETXO ARANTZABAL

Capoeira ezagutzera emateko 3.60 aretoan erakustaldia egin zuten taldekoek.



JOSETXO ARANTZABAL

Igor Ezpeleta, ibarreko taldearen bultzatzailea, Arrasaten zapatuan egindako saioan.

### • ABILEZIA BAINO, GOGOA GARRANTZITSUAGO



**DAVID** | ARRASATE

"Erakustaldietan eta telebistan ikusita ezagutu nuen. Deigarria iruditu eta orain dela bi urte hasi nintzen, baina Brasilen egon eta gero zaletu nintzen benetan".



**JOKIN** | ARRASATE

"Sotokan karatea egin nuen Bergaran, eta borroka-arteetara itzultzeko gogoa izan dut ordutik hona. Nahiz eta erabat ezberdina izan, hemen ere oso gustura nabil".



**JOSEBA, ASIER ETA HARITZ** | ESKORIATZA

"Arraroa baina dibertigarria" iruditzen zaie mutiko hauei capoeira. Eskoriatzako egubakoitz arratsaldeko saioan egin zuten lehenengo aldiz eta harritu egin zituen. "Ondo dago eta ez da oso zaila, baina guk nahiago dugu esku-pilotan ibili, abilagoak gara horretan."

**PIETRO GATUNO 'GATO'** | CAPOEIRA IRAKASLEA

# "Erlaxatua da capoeira, diziplina txikiagoa behar da"

J. B.

**Orain dela makina bat urte irten zen *Gato* Rio de Janeirotik capoeira eskolak emateko. Europan sei urte daramatza eta orain Euskal Herrian dabil.**

**Ematen duenez, gero eta jende gehiago animatzen da ikastaroetara, ezta?**

Gero eta presentzia handiagoa izaten hasi da. Hedabideetan, prentsan... Umeek ere bideo-jokoetan daukate capoeira eta berehala pizten zaie jakin-mina; gero eta gazteagoak gerturatzen zaizkigu. Gainera, akademia asko dabiltza irekitzen Europan, eta hemen behintzat badira sei bat urte ezaguna dela, eta gorantz dabil egiten.

**Zerk erakartzen ditu gehien: borrokak, dantzak, musikak?**

Hainbat arrazoi egon daitezke. Batzuk borrokarengatik datoz eta horietako asko ekialdeko borroka-arteen gehiegizko diziplinaz nekatuta gerturatzen dira. Capoeira erlaxatuagoa da, erakargarriagoa agian. Brasilen urte askoan ilegala izan da capoeira egitea, 70eko hamarkadatik aurrera egin ahal izan da askatasunean, eta poliziak asko jazarri du. Gaur egun, librea denetik, gertakizun soziala da, herriarena, jendea biltzen duena.



*Gato*, ikastaroko irakaslea.

**Ikastaroetan ere historia hori guztia azaltzen diezue ikasleei?**

Bai, guztia bat da-eta. Musikak ere garrantzi handia dauka. Borrokari dagokionez, asko aldatzen da hiri batetik bestera: leku batzuetan gogorragoa da, besteetan dantza gehiago dago... Egia da itzalpean egin behar izan dituen urteetan asko galdu dela eta esan daiteke Bahia hiriko capoeirak iraun duela gaurdaino. Han *birimbao*-a eta beste instrumentu batzuk gehitu zizkioten eta egungo estiloa gorpuztu egin zen. Dantza eta borrokaren artean dabiltza estilo gehienak. Ezaugarri horiek biak uztartzen dituela gustatzen zaio jendeari, edo hori iruditzen zait, alde horretatik ezberdina delako.

**Abila da hemengo jendea ikasteko orduan?**

Europako beste herrialde askorekin alderatuta erraztasun handiagoa dagoela ematen du. Erresuma Batuan ere irakasle izandakoa naiz; han lasaiagoak dira eta gutxiago hartzen dute parte. Capoeiran abestu eta animatu ere egiten da eta hemengo jendeak horretarako erreparo txikiagoa duela ematen du, irekiagoak dira. Kirolerako eta aisialdirako kultura handiago dagoela ematen du, eta asko laguntzen du capoeiran hasteko.

**GERO ARTE!** | BERGARAKO HARDCORE TALDEAK ALDI BATERAKO ETENA EGINGO DU

# Supercools-en agurrik indartsu eta gozagarriena

*Bergarako laukoteak etena egitea erabaki eta azken kontzertua egin zuen zapatuan gaztetxean. CDa eta fantzinea atera dituzte agur moduan*



JOSETXO ARANTZABAL

Etorkizunerako planik ez dute egin oraindik.

Jon Berezibar

Gau gazi-gozoa izango zen ziurrenik zapatukoa Supercoolsekoendako. Atseden hartuko dute denbora batez, eta horregatik jarraitzaileei gero arte esateko kontzertua egin zuten zapatuan. Emanaldian bertan orain dela gutxi grabatu duten bertsioen diskoa eta fantzinea aurkeztu zituzten. Lagunez inguratuta eta jai giro itzelean, Bergarako laukoteak kontzertu indartsu eta dibertigarriarekin esan zien agur zaleei.

Lagunez gain konpainia ezin hobean ibili ziren Supercoolsekoak zapatu gauean Bergarako gaztetxean. Eurekin batera, Bergarako The Bollocks, Fly Shit eta Mes que Odi katalanek jo zuten. Izotza hausteko lana The Bollocksekoek izan zuten. Talde berria da bergarar horiena, eta gaueko gainontzeko taldeek ez bezala, punk-rock klasikoagoa jotzen dute. Batera urtebete eskas daramaten arren, ez ziren oholtzan kikildu eta ganoraz jo zuten. Aipatzen zenez, gainera, taldearen azkeneko kontzertuetako bat izan zitekeen zapatukoa ere, taldekide batek kanpora joateko asmoa ei dauka-eta.

Haien ostean etxeko beste taldeak hartu zuen lekukoa, giroa poliki-poliki berotzen zihoala. Izan ere, jende dezente batu zuen Fly Shitek gaztetxean. Bigarren aldiz diskoa aurkeztu eta ohi bezala astindu ederrekin gainbegiratu zituzten euren abestiak. Kontzertu nahiko betea egin zuten eta nabari zen plaza ondo baino hobeto ezagutzen zutela, eta abesti zahar asko jo zituzten berrienekin batera. Ostean, eta Supercoolsekoei eszenatokia laga baino lehen, Kataluniatik etorritako Mes que Odi taldeak jo zuen. Haiekin gaztetxea zertxobait hustu bazen ere zuzeneko ona egin zuten. Hardcorea egiten du laukote horrek eta gurean izenak ez badu askorik esaten ere, ezagunak dira Katalunia aldean. Maila ona eta jarrera hobea erakutsi zuten.

**HELBURUA, DISFRUTATZEA**

Supercoolsekoek luze eta gogoz jo zuten, badaezpada ere. Taldeak beti izan du argi oholtza gainera ondo pasatzeko igotzen direla, eta hori nahitaez nabaritzen du ikusleak, kutsagarria izaten da-eta. Agur (edo gero arte) esateko penarekin baina irribarrea ahoan jo zuten kontzertua. Ia ordu biko emanaldia izan zen eta taldekoek beste gozatu ahal izan zuten euren lagunek ere.

Jendea gustura egon zen eta giroa paregabea izan zen. Taldeak iragarri duenez, etena egingo dute baina ez ei dakite ez zenbat denborakoa izango den ezta ostean itzultzekoak diren. Presio barik aske izatea dute helburu, eta zerbait argi badaukate, hori da musika dibertitzeko egiten dutela. Musika ulertzeko modu naturalena da hori agian, norberak nahi duena eginez.

Kontzertuan CD berria eta fantzinea ipini zituzten salgai, eta kontatu digutenez, ondo saldu zen zapatuan. Momentuz 250 bat ale egin dituzte, eurek ekoiztutakoak, eta datozen hileetan banatzeko asmoa daukate. Bertsio oso ezagunak bildu dituzte eta, gainera, diseinuak sorpresaren bat edo beste gordetzen du. Hori ikusteko ale bat eskuratzea onena.

**Kontzertua gazi-gozoa izango zen, baina ez zuten irribarrea galdu**

**Ez dute etorkizunerako planik egin, ez dute aurreratu nahi**

**• DISKOA ETA FANTZINEA KALERATU DITUZTE**



**TALDERIK KUTTUNENEKIN.** Martxo hasieran grabatu zuten dagoeneko eskuragarri dagoen bertsio diskoa. Angiozarko Koroba baserrian grabatu zuten, lagunartean, asteburu bakarrean. DeadKennedys, Poison Idea, RIP, Anestesia, BAP! eta halako taldeen moldaketak egin dituzte eta diskoarekin batera fantzinea ere atera dute.

**GAIZKA TABUENKA** | GITARRA JOTZAILEA

## "Jende askorengana iristea lortu dugula ikusi dugu"

J. B.

**Denbora batez kanpoan izango da Gaizka, eta horrek eragin du taldeak etenaldia egitea. Gero arte esatea espero dute, baina etorkizuna aurreratu barik.**

**Aspaldiko asmoa zen edo etenaldiarengatik atera duzue bertsioen disko hau?**

Gogoa betidanik izan badugu ere, orain dela hilabete batzuk sortu zitzaigun ideia. Bagenekien etena egongo zela, eta zer edo zer egitea pentsatu genuen. Azkenean 17 bertsio eta abesti berri bat grabatu ditugu.

**Asteburu baten egin duzue guztia, gainera, ezta?**

Martxoaren 3a eta 4a bitartean grabatu genuen, zuzenean, hogei bat lagun ere han zirela, guztia girotzen. Beti jo izan ditugu bertsio asko eta kontzertuetan ia errepertorioaren erdi moldaketak izaten dira; beraz, erraza izan zen.

**Hardcore taldea izanda ere, punk banda mitikoen bertsio asko sartu dituzue.**

Horiek dira-eta gehien eragin gaituzten taldeak. Gure fokatzea hardcorea bada ere, punka ezinbestekoa da.

**Sei bat urte egin dituzue batera; urte politak izan dira?**

Denetik izan dira, une onak eta txarrak. Baina orokorrean ondo, asko ikasi dugu. Azkenean jende askorengana iritsi ahal izan garela konturatu gara. Batzuetan *flipatu* egin dugu, ze gure musika ere ez baita jende askok entzuten duena, baina afizioa badago eta, agian, kanpoan Bergaran bertan baino handiagoa. Guk gustuko duguna egiten dugu eta hori da gauza politena. Gu ondo moldatu gara eta ia beti izan dugu jendea gure emanaldietan; ezin gara kexatu, ondo portatu da jendea gurekin.



Gaizka Tabuenka, *Tabu*.

**UDABERRIKO MUSIKALDIA** | HAIZE BERRIAK ORKESTRAK KONTZERTUA EGIN ZUEN ARRASATEN

# Europan barrena bidaia musikatua egin zuen Haize Berriak orkestrak

*Helburu didaktiko garbia izan zuen kontzertuak*

Jon Berezibar

Asteburuan hasi zen Arrasateko Udaberriko Musikaldia. Egiten den bigarren urtea da oraingoa, eta Udalak musika klasikoari lotutako urteroko hitzordu bihurtu gura du. Hain zuzen, Sakanako Haize Berria orkestra izan zen zapatu arratsaldean Amaia antzokian.

Aurkezpenari dagokionez, kontzertu nahiko bitxia egin zuten nafarrek. Bidaia moduan planteatuta, emanaldi narratua egin zuten. Hau da, musikariez gain Oskar Estanga aktorea izan zen oholtzan eta musikaren gainean hainbat testu interpretatu zituen. Haize Berriak orkestraren helburuetako bat musika klasikoa jendearengana gerturatzea da, eta horregatik egiten ditu emanaldi bitxi horiek. Zapatukoan, Europan zeharreko bidaia egin zuten, hainbat herrialdetako pieza ezagunak jota. Hasi, baina, etxean egin zuten, Franco Ribateren *Aires Vascos* lanarekin. Ondoren Frantziara jo eta Austria, Errusia eta Finlandian egin zuten itzulia, Strauss, Vlaak eta Sibeliusen obrekin. Narratzailearen gidaritzarekin bat proiekzioak ere erabili zituzten bidaian barrena laguntzeko, musikaren euskarri gisara. Pieza aski ezagunak izan ziren asko, eta horiek aurkezteko modua atsegina; nahiz eta aktoreak sarri baino gehiagotan bere testuarekin musika zapaldu. Hala ere, musika klasikora gerturatzeko ahalegin moduan ondo dago eta narrazioekin arinagoa egiten da emanaldia. Jendeari dagokionez, ez zuen erantzun zabalik izan, baina antzokian batutako gutxi horiek txaloekin hartu zituzten musikariak eta ordu eta erdi atsegina igaro zuten.

### Egitaraua

**EGUBAKOITZA, 31**
- **20:00**: Haize taldea: organo eta tronpeta jotzailea parrokian.

**ZAPATUA, 1**
- **20:00**: Conductus Ensemble, San Juan Batailatzailea parrokian.

**EGUBAKOITZA, 7**
- **20:00**: Kainaberaren Soinuak laukotearen emanaldia parrokian.



JOSETXO ARANTZABAL

Sakanako banda horren helburuetako bat musika klasikoa jendeari gerturatzea da.

Menchu Gal

**Margo erakusketa**

Bergarako Aroztegi Aretoan / 2006ko martxoaren 17tik apirilaren 30era

**Kirmen Uriberen "Poesia eta abar"**
Apirilaren 1ean, larunbata, 19:00etan

Ordutegia
Asteartetik ostiralera: 18:30-21:00
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-21:00
Igandeak: 12:00-14:00

Aste Santuko Ordutegi berezia
Apirilaren 13 eta 14an: 12:00-14:00
18:30-21:00
Apirilaren 17an itxita

AROZTEGI JAUREGIA

BERGARAKO UDALA





JOSETXO ARANTZABAL

Hamasei argazkik osatzen dute Gari Garaialde argazkilariak Espaloian ikusgai duen erakusketa.

# Surfa beste ikuspuntu batetik erretratatzen duen erakusketa

*Gipuzkoatik Lapurdira bitarteko kostaldeko hondartzak bisitatu ondoren Gari Garaialdek ateratako argazkiak daude ikusgai Elgetan*

**Non:** Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.
**Izenburua:** *Ametsak besarkatuz.*
**Edukia:** surfari buruzko zuri-beltzezko hamasei argazki.

Larraitz Zeberio

"*Etorri orduko alde egiten du itsasoak. Ez da erraza hura besarkatzea, eta bizirik egon behar da une iheskor batez haren laztanak harrapatzeko. Besarkada horien bildumari surfa deitzen zaio*". Gari Berasaluze kazetariak Gari Garaialde argazkilariaren erakusketarako idatzitako hitzaurrea da.

Argazkilari hondarribiarrak apirilaren 4ra arte du zabalik Elgetako Espaloian surfari buruzko 16 argazkiz osaturiko erakusketa. Normalean kirol horrek kolore biziak, bainu jantzi fosforitoak, itsasoko kolore urdina, hondarraren okrea edo gorputz beltzarana adierazten du, baina haiek ez ezik, beste kontzeptu askok irudika dezakete surfa, eta Gari Garaialdek kostatik paseatu ondoren beste era batera nabaritu du surfa. Garaialderen erakusketak, beraz, beste ikuspuntu batetik erretratatu du kirol hori.

**NEGUKO ARGAZKIAK**

Hamasei argazkik osatzen dute Garaialdek Espaloian duen erakusketa. Neguan ateratako argazkiak dira guztiak, denak zuri-beltzean. Paisaiak dira, urrutitik ateratakoak eta plano nahiko irekiekin. "Nire ustez, kolore biziak kenduz beste era batera nabaritzen delako kirol hori", esan du hondarribiarrak.

Erakusketan, Gari Berasaluze kazetari zarauztarraren hitzaurrea ere irakur daiteke. Pasatzen diren olatu guztietatik bat aukeratu behar du surflariak: hoberena, hain zuzen ere. Bizitzaren eta surfaren arteko harremana?



ROCK MUSIKA | **PIZTIAK TALDEA OÑATIN**

Gustuko dute gure ibarra; bi hilabete eta erdian hirutan izan dira Debagoienean, baina gureko entzuleek ere gustuko dituzte haiek. Horren adibide da egubakoitzean Oñatiko gaztelekuan batutakoen zaletasuna. Txomin Uribe taldeko abeslari eta gitarra jotzaileak esana da: "Gure kantuak ezagutu eta jarraitzaileak direnekin egiten dugu topo emanaldietan". Sei urteko isilunearen ostean soinu eta ikus-entzunezko aurkezpenarekin dabiltza hara eta hona. | A.G.



PUNK-OI! MUSIKA | **ARRASATE ETA BRITAINIA HANDIA**

Egubakoitzean Piztiak taldearen rocka izan zen protagonista Oñatiko gaztelekuan, eta zapatuan, berriz, punk-oi! musikak hartu zuen aretoa. Hiru taldek jardun zuten zapatukoan: Des-kontrol eta Never Surrender (argazkian) arrasatearrek eta Britainia Handiko Crashed Out taldeak. Entzule ugari batu ziren. Asko arrasatearrak; izan ere, Des-kontrol eta Never Surrender taldeek jarraitzaile talde zintzoa dute eta hori nabaritu egiten da egiten dituzten kontzertuetan; baita Oñatikoan ere | A.G.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ATE IREKIKO JARDUNALDIAK
2006-2007

agorosabel@eps.mondragon.edu
Tel: 943 73 96 30
www.eps.mondragon.edu

2006-2007

| EGUNA | ORDUA | LEKUA | TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|
| 2006.03.29 | 18:00 | 5001 | • Mekanizatze Bidezko Ekoizpena. • Proiektu Mekanikoen Garapena. • Industri Ekipoaren Mantenketa. |
| 2006.04.26 | 18:00 | 5001 | • Sistema Informatikoen Administrazioa. • Informatika-Aplikazioen Garapena • Telekomunikazio eta Informatika Sistemak. • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. |
| 2006.05.24 | 18:00 | 5001 | Guztiak |

• Eskola presentzialak tailer eta laborategietan parte-hartze praktiko altuarekin.
• Praktikak enpresetan (400 ordu).
• Enpresek ondo baloratutako tituluak.
• Lan-insertsio maila altua: >%98
• Mondragon Unibertsitateko 7 Ingeniaritza Teknikotan sarrera zuzena.





**MUSIKA** | XKRUDE, LINEA 77 ETA SOULFLY TALDEAK BERGARAKO JAM ARETOAN IZAN ZIREN BARIKUAN

# Max Cavalerak karisma handia dauka; entzuleak poltsikoan izan zituen

*Xkrude jaendarren ondotik Linea 77 italiarrek jo zuten, iragarrita ez egon arren. Soulfly taldearekin entzuleak saltoka hasi ziren lehen abestitik*



JOSETXO ARANTZABAL

Euren errepertoriokoez gain, ohi bezala, Sepulturaren kantuak ere egin zituen Soulfly taldeak.

Josu Txintxurreta

Bergarako Jam aretoa jendez bete zen Soulfly taldea ikusteko. Sepulturako lider ohiak, Max Cavalerak, jendea erakartzen du oraindik. Soulfly lan berria aurkeztera etorri zen, bosgarrena: *Dark Ages* (2005). *Numetal*-etik zeharo urruntzen den diskoa da; komertzialtasunetik erabat aldentzen dena.

Soulflyren aurretik beste bi talde ikusteko aukera izan genuen. Lehenak taulara igotzen Xkrude andaluziarrak izan ziren. Jaendarrek oso metal gogorra egiten dute eta soinu aldetik ez zuten zorte handirik izan barikuan. Euren ondotik Linea 77 igo zen taulara. Ez zeuden iragarrita, eta entzuleek oso gustura hartu zituzten. Italiako metal talderik ezagunenetarikoa da; urteak daramate jotzen eta ederki jakin zuten entzuleekin konektatzen, batik bat emanaldiaren erdialdera, *Walk like an egyptian* abestia jo zutenean, Bangles taldearen bertsio metalizatua.

**SOULFLY ZORAGARRI**

Baterian Joe Nuñez –izugarria–, Bobby Burns baxuan eta gitarran Marc Rizzo. Talde gogorra osatu du Maxek; aurreko diskoko –*Prophecy*– talde bera da, eta hori nabaritu egiten da.

Azken diskoko *Babylon* abestiarekin hasi zuten emanaldia eta jendea saltoka hasi zen hasieratik. Hori bai, Max zahartzen hasia dago –lau bat aldiz sartu zen aldagelara–, baina izugarrizko ahotsa duela erakutsi zuen. Kontzertua bikain hasi zen. Soinu izugarria izan zuten, arazo txiki batzuk izan ezik. Abestiak errenkadan jo zituzten eta ez zen egon aspertzeko unerik. Sepultura taldeko *Roots bloody roots* abestia jo zutenean jendea *zoratu* egin zen. Ondoren, euren abesti onenak jo zituzten: *Bring it, Back to the primitive, Eyefor an eye,Tribe*... eta baita Sepultura taldeko *Refuse Resist* ere. Azkenengo diskotik nahiko abesti jo zituzten, nabarmentzekoak: *Carved inside* eta *Arise again*. Maxek izugarrizko karisma dauka eta kontzertua hasi eta bukatu arte jendea poltsikoan izan zuen.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA 2006ko martxoaren 27a

HUHEZIk antolatutako Literatura Astearen barruan nagikeriari buruz hitz egitera joan zen eguen iluntzean Eskoriatzara. Garai guztietako literatura erreferentziak izan zituen ahotan alferkeriaren onurak zenbaterainokoak diren azaltzeko. "Munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra", esan zuen Harkaitz Canok. "Beti gabiltza alferrari kargu hartzen, baina ez gara konturatzen alferra erresistente hutsa dela, ekintzara bultzatuko duen zera horren bila dabilen energia optimizatzailea".

**HARKAITZ CANO** | IDAZLEA

# "Gaizki ikusia dago nagia izatea, baina pertsona nagia iraultzaile potentziala da"

Larraitz Zeberio



Harkaitz Cano euskal idazle gazteen artean nabarmendu da azken urteotan.

L.Z.

**Zazpi bekatuetatik nagikeria egokitu zaizu zuri. Zergatik zure ustez?**

Pentsatzen dut kontrastez oso langilea naizelako. (Barre). Egia esan, bi eman zizkidaten aukeran eta berehala ikusi nuen garbi nagikeriarena. Beti lotu izan da artista ezer egin gabe dagoen pertsonarekin, diletantearekin. Hori erakargarria egiten zait.

**Eta ez da horrela izaten?**

Ez da horrela izaten. Bueno, horrela izan daiteke, baina ez da beti horrela. Gaur egun dena da produktiboa. Jendeak zertan ari zaren galdetzen dizunean zerbait idazten ari zarela erantzun behar duzu. Gainera, noiz aterako duzun ere esan behar duzu. Hori, idazle batentzat tortura da. Nola azaldu jendeari bi urte behar dituzula irakurtzeko, hor zehar ibiltzeko eta gero hasiko zarela idazten? Hori, gaur egun, ez dago ondo ikusia.

**Nola hartu zenuen HUHEZIren gonbita. Literatura Astearen gaia originala da.**

Erronka polita da, ze normalean liburu baten aitzakian deitzen baitidate beti. Horrela, gaia jarrita gutxitan izaten da. Erronka polita izan da eta azkenean hainbat material bildu dut. Ez dakit liburuxka bat egiteko ez ote didan emango, gainera! 40 folio dauzkat. Beharbada zerbait produktiboa aterako da hemendik.

**Handiustea, gutizia, haragikeria, ira, sabelkeria, inbidia eta nagikeria dira zazpi bekatu nagusiak. Horietako bekatu askotan eroritakoa zara zu?**

Bai. Gutxi edo asko, baina segurutik denetan eroritakoa naiz.

**Eta bekatuak onartzen dituztenen artean zaude?**

Hori geratu zaigun herentzia da. Axularrek jasotzen du bere obran "nagia izatea zenbat den kaltegarria eta nola deabrua, azkenean, nagiari sartzen zaion belarritik". Kristau fedeak esaten duen moduan, "ez zaitez aho-zabalka ibili ze deabrua ahotik sartuko baitzaizu". Baina hori jaso dugun herentzia da. Ez dut uste gure belaunaldiak bekatu kontzeptuetaz askorik hitz egiten duenik.

**Zuri nagikeria egokitu zaizu, eta zer deritzezu gainerako hautaketei?**

Hasier Etxeberriari sabelkeria egokitu zaio. Hasierrena berehala ulertu nuen. Niri eskatuko izan balidate euskal idazle bat sabelkeriari buruz hitz egiteko aurreneko bururatuko zitzaidakeena Hasier izango zen. Beti dabil sukaldarien artean eta ondo jatea gustatzen zaio, gainera.

Ez nituen Unai Elorriaga eta Kirmen Uriberen hitzaldiak entzun, baina iruditzen zait kontrastez emandako bekatuak egokitu zaizkiela. Unai handikeriaren kontrakotzat jotzen dut eta Kirmen ez dut inbidiarekin lotzen. Subjektu pasibo bezala ez badu hitz egin besteek berari dioten inbidiaz…

**Zein literatura generok ematen dizu nagitasun handien?**

Seguru asko nobelak, baina nagien berezko generoa diarioa da. Kontrakoa badirudi ere diarioa gogoak ematen digunean idazten dugu. Nor bere buruari buruz aritzen da eta ez daukagu ez argumenturik sortu beharrik ez pertsonaiak garatu beharrik. Neurria nahi duguna izan daiteke; aforismo bat, esaldi bat edo testu luzea. Kontradikzioak badaude ondo etorriak dira, diarioa nork bere buruarekin egiten duen psikoanalisia delako... Genero oso erosoa da. Nagien generoa.

**Telebista, zinema eta irratiko gidoigile ere bazara. Zein duzu gustukoen?**

Gero eta gidoi gutxiago idazten ditut, baina irratia asko gustatzen zait. Askeagoa da. Irratian euria egitea nahi baduzu edo egundoko ekaitza oso merkea da. Telebistan ez. Nire lagun batek elurra ari zuen pelikula bateko gidoia idatzi zuen eta produktorea etorri zitzaion elurra ezinbestekoa zen galdetuz, minutuko ez dakit zenbat milioi pezeta zirelako. Besteak erantzun zion elurretako panpina baten istorioa zela. Hori kontuan hartzeko.

**Ipuinak idazten dituzu gehienbat. Jakingo ez bagenu ipuin onak idaztea zenbateraino den zaila pentsatuko genuke laburrak direlako idazten dituzula, nagikeriagatik.**

Niretzako kontrakoa da. Ipuingilea eskuzabala da. Istorioa luzatu beharrean bere neurrian kontatzen duena. Esango nuke irakurleetan nagiena nobela irakurlea dela. Zergatik? Ez zaiolako aldatzea gustatzen. Behin Boeing 747 batean sartu denean ez du hegazkin horretatik jaitsi nahi. Pertsonaiak eta argumentua ezagutu egiten ditu. Irakurle estandarra da, nagia. Ipuin liburu batean hegazkin-aldaketa asko daude. Liburuak derrigortzen zaitu pertsonaiak eta argumentua uztera beste batean sartzeko. Gehiago eskatzen zaio irakurleari.

**Nondik hartzen dituzu idatzietan erabiltzen dituzun istorioak?**

Nire ingurutik, irakurtzen dudan literaturatik, ikusten ditudan filmetatik. Niretzat errealitate beraren parte dira. Askotan Kafkaren pertsonaia bat nirera ekar dezaket, esaterako.

**Eta orain, momentuan, zertan dabil Harkaitz Cano?**

Azaltzen hain zaila den momentu horretan nago. Idazle batek esan zuen nagikeria egoera aurre-iraultzailea dela. Nagiak ez du ezer egiten, baina azpilanean dabil. Zerbait prestatzen dabil. Ni malezia aurre-iraultzaile horretan nago. Gero etorriko da idazketa.

> "Beti lotu izan da artista ezer egin gabe dagoen pertsonarekin, diletantearekin"

> "Zerbait idazten ari zarela entzun nahi du jendeak; nola azaldu bi urte behar dituzula aurretik"

> "Nagien generoa diarioa da. Gogoak ematen digunean idazten dugu, eta nahi dugun neurrian"

> "Irakurle nagiena nobela irakurlea da: argumentua ezagutzen du eta ez du aldatu nahi"

# Santa Marinako liburutegi berritua aurkeztuko dute bihar, martitzena

*Arrasateko haur liburutegi hori aspaldian dago zabalik, baina jendeari hobeto ezagutarazi gura diote orain*

Leire Kortabarria

Arrasateko Santa Marinako auzo liburutegia aurkezteko ekitaldia egingo dute bihar, martitzena. Ekitaldia 18:30ean hasiko da. Lehenengo, arduradunek liburutegia eta bere zerbitzuak aurkeztuko dituzte; udal ordezkari batzuk ere han izango dira. Gero, Goikobaluko Haur Abesbatzak eta Arrasate Musikaleko talde batek emanaldiak egingo dituzte. Bukatzeko, luntxa izango dute gerturatu diren guztiek.

Santa Marinako liburutegia ireki zutenetik denbora pasa da, baina berrikuntza batzuk egin dituzte eta, hori aprobetxatuta, jendeari liburutegia hor dagoela gogorarazteko: "Jende askok ez daki liburutegi hori dagoenik, haur liburutegia delako, 16 urtera artekoendako. Orain politago ipini dugula aprobetxatu gura izan dugu jendeari berriro aurkezteko", dio liburutegiko arduradunak, Nerea Mendizabalek.

**IAZ, 5.000 ERABILTZAILE**

Santa Marina auzoko haur liburutegia gehiago erabil dezaten gura dute, baina orain arteko erabilpen datuak onak dira. Hala, iaz 5.024 erabiltzaile izan zituen, eta 2.641 dokumentu mailegatu zituzten. Orain etxebizitza asko eraiki da auzoan, eta erabilpena igotzea espero dute.

Bestetik, 4.005 bat liburu daude han; umeendako CD-ROM eta musika CDak, ehun bat; hamar aldizkari, eta beste aldizkari batzuk gurasoendako. Astelehenetik egubakoitzera bitartean dago zabalik, 16:30etik 20:00etara bitartean.

Apirilaren 2a Haur Liburuaren Eguna dela eta, une egokia izan daiteke mota horretako baliabideak ezagutzeko.

## Labur

### 'Asto bat hipodromoan' ipuina kontatuko du Gorringo taldeak

*Asto bat hipodromoan* Bernardo Atxagaren ipuinaren kontakizuna egingo du Gorringo taldeko Iñaki Agirrezabal aktoreak etzi, eguaztena, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, 17:00etan. Lan hori moldatu berri dute, eta bigarren emanaldia izango da Aretxabaletakoa. 8 urtetik gorako umeendako da, 45 bat minutukoa. Apirilaren 6an, Arrasaten egingo dute emanaldia.

Hipodromoa duen Lasartevich herrira, hango bizimodua aldatuko duen morroi bat iritsiko da: hori kontatzen du ipuinak.

### Zumarragako erretiratuendako kultura ekitaldiak Pake-Lekun

